

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

SALBAMENA ETA KRISTAU BIZITZA

Poza eta itxaropena

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO GOTZAINEN IDAZKIA**

1990, GARIZUMA-PAZKO PIZTUERA

AURKIBIDEA

SARRERA (1. z.)

- Gure asmoa (2. z.)
- Lehenengo kristauen esperientzia (3-5. z.)
- Itxaropenezko garaia da (6. z.)
- Kristautasunak ez duela ezer egiten? (7-8. z.)
- Salbamena hartzeko prest (9-11. z.)
- Elizaren egitekoa (12-13. z.)
- Idazki honen egitura (14. z.)

I.- SEME-ALABENTZAKO BIZITZA

- A. AITARENGANDIK ETA SENIDE ARTEAN (15. z.)
 - Jainkoarekin gustura egon (16. z.)
 - Senide bezala biziz, Aita ezagutu (17. z.)
- B. SEME-ALABATASUNA ETA OINARRIZKO JARRERAK (18. z.)
 - Oinarrizko konfidantza (19. z.)
 - Nork bere burua onartzea (20. z.)
 - Bizitzaren alderdi onak ikusten jakin (21. z.)
- C. BETIEREKO MAITASUNAK SALBATUAK (22. z.)
 - Salbatzen duen jakinduria (23. z.)
 - Jainkoaren ezaguera eta erantzukizuna (24. z.)
 - Neurrigabeko Maitasunaren betiereko elkarrizketa (25. z.)
 - Semearengan seme eta alaba (26. z.)
- D. MUNDUARI BEGIRA ETA BERONEN ERANTZULE (27. z.)
 - Jainkoak egindakoa maitatu eta errespetatzea (28. z.)

Zergatik egiten du Jainkoak hain gutxi? (29. z.)
Jainkoa beti lanean ari da munduan (30. z.)
Jainkoarekin lankide askatasun lanean (31. z.)
Egiazko askatasunez (32. z.)
Jainkoa beti ona dela uste osoa dugu (33. z.)

E. BARNEKOTASUN ERANTZULE BATEN BIDEAN (34. z.)
Otoitz egiten ikasi (35. z.)
Jainkoaren bideak bereizi eta jarraitzea (36. z.)

II.- NIRETZAT, BIZITZEA KRISTO DA (37. z.)

- A. MAITASUNA, ERREINUKO LEGE NAGUSIA
Maitasunaren alde ala aurka? (38. z.)
Gizarte izateko era berria (39. z.)
Solidaritza, egiazko askatasunaren osagai (40. z.)
Norberarenganako ondo ulertutako maitasuna (41. z.)
Maitasunezko harremanez txikordutako mundua (42. z.)
Zorionekoa zu, sinetsi duzulako (43. z.)
Gizarteko bizikidetzaren aldaketa maila guztietan (44-45. z.)
Herrien arteko solidaritza (46. z.)
- B. GURUTZEA, ITXAROPEN BIDE (47. z.)
Kristoren nekaldia, kemen iturri (48. z.)
Historiako kaltetuen alde jartzea (49. z.)
Ezinaren azpian zapalduta? (50. z.)
Baretasuna berreskuratzea borrokan jarraitzeko (51. z.)
Umementan (52. z.)
- C. BERPIZKUNDEAREN POZ BETEA
Biziaren garaipena (53. z.)
Berpiztearen indarrez (54. z.)
Barreneko baretasun sakona (55. z.)
Kristoren asmoa egiaztatua (56. z.)

III.- ESPIRITUARENGAN BIZITZEA

- A. KRISTORENGAN BIZITZEA ESPIRITUARENGAN BIZITZEA DA
Espirituak eramaten gaitu Jesus aurkitzea (58. z.)
Espirituari esker dakigu, Kristoren gurutzea dela Haren garaipena (59. z.)
Eguneroko bizitza osoa Espirituaren "fruitu" den maitasunez eraldatua (60-61. z.)
Alaitasunez eta bihotz handiz bizitza (62. z.)
- B. ESPIRITUAREN BIDERA MUNDUAN ETA ELIZAN
Espiritua nonahi bere lanean ari den mundura itzulirik (63-64. z.)
Espirituaren egoitza berezi-berezia den Elizak sortua (65. z.)
Elizaren begibistako alderdien bitartekotza onartuz (66-67. z.)

Espirituarekin batera, elkarte konkretuen egile (68-69. z.)
Batasuna eraikitzea ezberdintasunean (70-71. z.)

C. ESPIRITUAREN ERAMAILE MUNDURA

Elizarekin, misio lanean (72. z.)
Espirituaren zerbitzura, mundua Jainkoaren Erreinu bihurtzeko
(73-74. z.)
Materia, Jainkoaren salbamen asmo barruan sartzea (75-76. z.)
Espirituaren kutsua ematea maitasunaren eta bizitzaren etikari
(77-79. z.)
Espirituaren eraginez, zuzentasun eta bakearen alde lan egitea
(80-81. z.)
Kulturak ebanjelizatzea (82-84. z.)
Munduaren barrutik aritzea, bakarka nahiz elkarturik (85. z.)
Solidaritzako askatasun egile eta Jainko biziaren testigu (86. z.)

IV.- GIZAKIA HIRUTASUNEAN (87. z.)

Maitasuna Jainkoarengan eta gizakien artean (88. z.)
Maitatzea ematea eta onartzea da (89. z.)
Maitasuna eta egia (90-92. z.)

AZKENA

Hirutasunean bizitzea Jesusen bizitzan txertaturik (93-94. z.)
Etsairik funtsezkoena den bekatua garaitzea (95. z.)
Jainkoarenganako maitasunera eta biziaren betetasunera bihotz-berritzea
(96. z.)
Itxaropena ezaugarri dugula (97. z.)

SARRERA

1. Aurreko urteetan, gure munduan fededun izateaz hitz egin dizuegu. Luze samar aipatzen genizuen, zein den Jainkoa eta gizakia ulertzeko kristau era. Saiatu izan gara, gure gizartean fedezko atxikimendua bizitzeko zer arazo eta eragozpen ditugun jabetzen. Dei egiten genizuen Kristori gure Eliza honetan jarraitzera, eta indartsu eskatu izan dizuegu parte har dezazuela, bai bizitzaz eta bai hitzaz, salbamen mezua zabaltzeko eliz zereginen.

Gure asmoa

2. Aurtengo Garizumari hasiera ematerakoan, zuen begien aurrean zehaztu nahi ditugu, Kristorengan salbatua izan den giza bizitzaren oinarrizko ezaugarri batzuk. Idazki honekin, gure elizbarrutiko fededun elkarteei hitz egiten diegu, haien fedeari janaria eman eta eutsi nahiz. Hitz egiten diegu, gainera, kristau bizi modua eta beronen sinesgai sakonak hausnartu nahi dituzten gizon-emakume guztiei. Denok jakin beharra daukagu, lehenengo testiguen bezala, Jauna ez dagoela hilen artean, eta gaur ere itxaropenez bizi gintezkeela.

Lehenengo kristauen esperientzia

3. Salbamenaren esperientzia, piztueraren iragarpen pozgarritik sortu zen: “Zer zabiltzate hilen artean, bizi denaren bila? Ez dago hemen; bizitu da!” (Lk 24,5-6). Emakumeak, ikasleei berria ematera joan ziren. Eta ikasleon testigantza eta hitzari esker, lehen fededunak esperientzia hartara bildu ziren. Gotzainok, apostoluen ondorengo bezala, mezu bera aldarrikatzen dugu.

4. Jesus berpiztu zuen Jainkoaren indar bera nagusitzen da giza bizitzaz, eta askatu egiten du, ez giza egintzen eta ahaleginen ondorio bezala, fedearen emaitza bezala baizik¹. Honen eraginez, izate osoa salbamen indarrari irekitzen zaioz², eta gizakia hondatu egiten da, bere egiazko nortasuna aurkitzeko, era misteriotsu baina ulergarrian.

Jaun berpiztua ez dago urruti; hementxe bertan, tarteko daukagu³, eta gure bizitzak Harekin bat egiteko joera baztertuezina sumatzen du. Kristauek, Nazareteko Jesusen bizibide bera egin nahi dute⁴.

¹ Ikus 1 Ts 2,5; 2,12; 5,9-10; Erm 1,8; 3,23; 5,1-2; Ga 2,16; Ef 2,4-9.

² Ikus Ef 1,19-20.

³ Ikus Ap Eg 9,5; Flp 2,1; 3,12.

⁴ Ikus Flp 3,1-16.

5. Ez dira besterik gabe, magiaren ukituz, gaitzetik babestuak gelditzen. Mundu atsekabetu eta zuzengabeak hor jarraitzen du, eta ez azpiegitura lainotsu bezala bakarrik, baizik eta elkartearen bizitza eta norberaren barrukotasuna zauritzen duen errealitate bezala⁵ ere bai. Bakoitzak bere ahuldadea nozitzen du eta besteenak ere erasaten dio⁶. Talde bizitzan, zatiketek eskandalua sortu eta sufri erazi egiten dute⁷. Bekatua gainditzeko, borroka atergabea eta iraunkorra egin beharra dago⁸.

Bizigirot honetan, fededunak Jainkoaren “pozibidea” sentitzen du⁹: adorea, erorialdian tente irauteko, besteei arnasa emateko, hurkoa den bezala onartzeko. Elkar onartzeak girotzen dio eguneroko harremana, horretan Jainkoaren “antz-irudia” biziz, Hark grekoa eta judutarra salbatzen bait ditu, hain kultura ezberdinetakoak izanik ere¹⁰.

Hartutako dohainaren kontzientziak esker ona sortzen dio, baretasuna eta alaitasuna¹¹. Poz gurutziltzatua da, gaitzaren arazo larria eta gaizpidearen beso ugariak ongi ezagutzen dituen¹². Baina itxaropenari begira bizi den poza. Dagoeneko gertatua den salbamenak bere betera iritzi behar du. “Marana tha!” Zatoz, Jauna! eskaria kristau bizitzaren arnasaldien erritmo azkengabea bihurtzen da¹³.

Heriotza, azken etsaia, ezereztua izango da. Orduan ez da gehiago izango ez minik, ez bekaturik, ez zuzengabekeriarik. Santuak, denen gainekoa eta mugagabea denak, dena beteko du bere hurbiltasunaz. Jainkoa izango da guztietan guztia¹⁴.

Itxaropenezko garaia da

6. Salbamena hots egiten ez gara ari inolako itxaropenik ez duen mundu bati. Gertaera bizigarriak bizi ditugu. Oraindik ere munduko herriek askatasunaren alde jokatzeko dute, gizatasunezko bizitzaren balio nagusi horren alde. Eta joera hori, gogo onez eta egiazko solidaritaz ikusten da.

Badirudi bakea sortzeko asmo ederrak aurrera egiten duela. Desarmera iristeko hizketaldiak aurrerabidean dira. Gure herrian bertan ere, handitzen ari da gogorkeriaren kontrako mugimendua; eta gogorkeria hori gainditzeko lanean

⁵ Ikus 1 Ts 3,7; Ga 1,4.

⁶ Ikus Ga 4,12 jar.; Erm 8,26; 1 Kor 8,7 jar.; 2 Kor 12,9-10...

⁷ Ikus 1 Kor 1,13; 11,19; Tt 3,10; 2 Pe 2,1.

⁸ Ikus Erm 6,1-2. 10-13; 1 Kor 15,34; 1 Tm 5,20.

⁹ Ikus 2 Kor 1,3-7.

¹⁰ Ikus Erm 15,5-9.

¹¹ Ikus 1 Kor 1,4; 10,30; 15,57; 2 Kor 2,14; Ef 1,16; 5,4.20; Kol 1,3; Flp 1,3; Ap Eg 5,41; 8,8. 39; 15,3; 1 Kor 16,17; 2 Kor 7,4.

¹² Ikus Erm 15,13; Ga 2,19.24; 2 Kor 2,1 jar.; Flp 2,27-28; 1 Pe 1,6; 2,19.

¹³ Ikus 1 Kor 16,22; Apk 22,20; 1 Kor 13,10; Apk 19,7; Ap Eg 26,6-8; Ef 4,13; Flp 3,11...

¹⁴ Ikus Apk 22; 1 Kor 15,28.

hiritar guztiok daukagun solidaritzako erantzukizunaren kontzientzia ere hazten ari da.

Kristautasunak ez duela ezer egiten?

7. Espiritu Santua ari da aipatu ditugun mugimendu horietan arnasa ematen, eta izaki guztiak Kristorengan bildu nahi ditu, une berean gizon-emakumeen gizatasun betea bultzatuz. Hala eta guztiz ere, mendebaleko gure gizarte honetan, kristautasuna eraginik gabea dela uste duen sentiera bat zabaltzen ari da: gizonaren aldeko interesa sortzeko eragin gutxi duela uste duen sentiera, alegia. Hirugarren munduko lurraldeetan (Afrikan, Ameriketan eta Asian) apostolutza lana egiten ari diren gure elizbarrutietako misiolariei egin izan dizkiegun ikus-taldiek erakusten digute, leku haietan Eliza eta kristau fedea onartuak direla, askatasunaren eta garapen osoaren eragile bezala. Gauza bera gertatzen dela dirudi, Europako ekialdeko lurraldeetan ere.

Alderantziz, gure artean gizon-emakume asko ez du ematen oso prest dagoenik, kristau salbamena jasotzeko¹⁵. Sasi Jainkoek mundu honetako lau hormen barruan itxita utzi dituzte: diruaren eta erosotasun materialaren idolatria, atseginaren gose gehiegizkoa, agintea eskuratzeko grina, ez besteak zerbitzatu gogoz, besteak menperatzeko asmo soilez baizik.

8. Beste zenbaitetan, berriz, gizakia ahaleginez saiatzen da Jainkoaren egin-tza bere ikuspuntura egokitzen. Ez da batere harritzekoa, azkenean Jainkoak hots egin diola sentitzea, kasu honetan ere. Hala gertatu zitzaien Emausko ikas-leei, ez bait zuten Mesiasengan sinestu, hari buruz zeukaten bere ustean baizik.

Bere buruaz aski izanik Jainkoa baztertzen duena, edota Jainkoa bere asmoen morroi huts bezala hartzen duena, ez da salbamenera zabaltzen. Ezta ilusioa galdu duelako, eszeptizismoan murgildua gelditzen dena, edota giza bizitza bere muina hustutzen dioten jarrera axalekoetara jotzen duena ere.

Salbamenera jaikitzen uzten ez duen eragozpen handia, eta beste eragozpen guztien bilduma, zera da: gizakiak bere burua ardatz bihurtzeko daukan joera.

Salbamena hartzeko prest

9. Bibliako Jainkoak prest egotea eskatzen du, batez ere. Halaxe eskatu zion Abrahami; eta hura, Jaunaren deia entzutean, nora zihoan jakin gabe atera zen. Halaxe eskatu zion Mariari ere; honek ezin zezakeen aurrez ikusi, egunen batean bere "baietzak" bere Semearen gurutze azpira eramango zuenik.

Barne zabaltasunezko jarrera hau oso zaila gertatzen zaio gaurko gizonari, dena bere zentzuen frogaz neurtu nahi bait du, eta askoz kezkatuagoa bait dago izadia eta bere hurkoak menperatzeaz, beroiek errespetatu eta onartzeaz baino.

¹⁵ Ikus IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaur egun*, Pastoral Idazkia, 1986, Garizuma-Pazko Piztuera, 15-20. z.

Gizakiak bere buruari aski iriztea baztertu eta beregandik irtetea erabakitzen badu, orduan aurki dezake Jesukristoren Jainkoa.

10. Inor ez da Jauna baino gehiago arduratzen gizakiaz. “Aitaren eta bere maitasunaren misterioa agertzeak, era betean adierazten dio gizona gizonari eta bere bokazio bikaina ulertarazten dio” (*Gaudium et spes*, 22. z.). Jesukristoren salbamena onartzeak esan nahi du, Hark gizadi berria sortzeko daukan asmoarekin bat egiten dela.

Gizadi berria, izan ere Jainkoak, egiazko gure interesa bilatuz, ez dio gizakiari honek beretzat ontzat jotzen duena bakarrik ematen. Gizadi berria, salbamenak duen izaera berriaz. Gizonak, Jainkoaren asmoak onartzen hasi behar du, gero bere ahalbide guztiez asmo horiek beregan eta besteengan bideratzen saiatzeko. Gizadi berria da, eta hala ere egiazkoa.

11. Salbamenak, mundu honetako “sasikonponbide” eta jainkokerietatik ateratzen gaitu. Salbamenak erakarri egiten du gizona, bere gizatasuna mami-hustutzen dioten egoera horietatik irteteko ahalmenik geratzen baldin bazaio behintzat. Salbamena hestu lotua dago solidaritza, egia, zuzentasuna, maitasuna eta horrelako mezu mardulekin; mezu hauek oraindik ere badute beren oihartzuna gizakiaren bihotz barnean, egiteen balioz emanak datozenean batipat. Kristautasunak sakondu egiten ditu eta beren zentzu osabetea ematen die.

Nork bere burua erantzi eta beretik kanporatzea ez da ezertxo ere galtzea, guztia irabaztea baizik. Ez zaio askatasunari uko egiten, egiazko bere zentzua ematen baizik: Jainkoa Aita on bezala onartu, eta Hark gizadi berri baten egile eta gainontzeko gizon-emakumeen zerbitzari egiten gaitu. Ez da zorionari uko egitea. Salbamena hartzeko oinarrizko baldintza, salbamena hartzeko prest egotea alegia, gizakiaren barru-barruko jarrera da. Onartzea eta onartua sentitzea, gizon-emakumeon bihotza asetzen duen egiazko maitasunaren eskakizuna da.

Elizaren egitekoa

12. Elizak goi-argiaren distira eta jainkozko graziaren indarra eskaintzen dizkio, gizaki eta mundu gizabidezkoagoak sortu nahi dituen elkar ahaleginari. Ezer eta inor ez da jainkozko bizitzara bildu eta irekiko, bere izatea hobetuz ez bada.

Elizak ongi daki hori: “Gure garaietako gizon-emakumeen poz eta itxaropenak, atsekabe eta larrialdiak, batez ere behartsuenak eta era askotako atsekabetuenak, Kristoren ikasleen poz eta itxaropen, atsekabe eta larrialdi dira; eta ez da giza mailakorik ezer, haien bihotzean oihartzunik ez duenik” (*Gaudium et spes*, 1. z.).

“Gizakia da gaur egun Elizaren bidea” (Joan Paulo II). Eliza honen barnean, fededun asko dira beren bizitza arriskuan jarri eta hondatzen dutenak, behartsuen mesedetan, eta gizakien artean ulermena eta bakea sortzearen mesedetan.

13. Uste dugu gaurko gizakia zabal daitekeela kristau salbamenera, eta salbamen horretan aurki dezakeela egiazko gizatasunaren bidea. Espero dugu, hemen zehaztasun nagusienetan adierazi nahi dugun kristau bizitzaren testigantzak, sortaraziko duela fedezko atxikimendua, gizona bere buruarekin topo egitera eramanez.

Denen gainera, Jainkoagan jartzen dugu geure konfidantza, Hark betetzen bait du bere graziaz giza bizitza, Hark bultzatzen ditu konbertsio bide bakoitzaren hasierak eta Hark laguntzen bide horren urrats bakoitzean. “Hauxe da –gaur ere– salbamen eguna¹⁶.”

Idazki honen egitura

14. Salbamina Jesukristori esker sartzen da gure bizitzan. Hori dela eta, kristau bizitzaren ezaugarri nagusiak aurkitzeko, Nazaretoko Jesusek gure artean egin zuen bizitzari begiratzen diogu. Haren nortasunari darion indar erakartzailerik horrek eraginik, Haren ezaugarriak geure ezaugarri egin nahi ditugu.

I.- Jesukristok modu berri batean dei egin zion Jainkoari. “Abba”, Aita, deitu zion; eta, horrela, Hari buruz hitz egin baino gehiago, Harengan sinestuz bizitzen irakatsi zigun, Jainko onberak inolako baldintzarik gabe onartzen gaituela sumatuz.

Elkarrizketa honek bere sustraiak botatzen ditu, Aitak eta Semeak elkarrekin bizi duten harreman sakonean. Harreman horretan ikusi eta maitatzen gaitu Jainkoak gu eta gure mundua. Aitak maite duela dakiena, gizon-emakumeen anai-arreba sentitzen da, eta Jainkoak sortu duen izadia estimatu eta errespetatzen du.

Gure idazkiaren lehen atala, Jesusi jarraitzen diotenen *seme-alabatzeko bizitzaren* ezaugarri horiek aztertzen emango dugu.

II.- Aita Jainkoaren maitasun hau Jesusekin batera bizi duenak, Harekin eta Hark bezala maitatzen ere ikasi behar du. Horregatik, Zoriontasunetik adierazten duten kristau maitasunaren zer-nolakoa aurkitzen saiatuko gara. Maitatzeko era horrek, norberak bere biziera pribatuan dituen harreman interpersonalak moldeatu behar ditu; baina ez hori bakarrik: bizikidetzaren alor guztietan kristauak duen jokaera ere bai.

Sufrimenak ez du ukatzen Jainkoak guretzat duen maitasuna. Jainkoak ez gaitu minetik askatzen, minetan eta minaren bidez baizik. Gurutzean ernaltzen da, kristau bizitza itxaropenez betetzen duen piztueraren indarra.

Guzti honetaz arituko gara *Niretzat, bizitzea Kristo da* deitzen dugun atalean.

III.- Jesusek Aita adierazten digu, eta Bera eredutzat eskaintzen zaigu. Baina gehiago ere bai: bere Espiritua txertatzen digu. Espiritu Santuak Jesuse-

¹⁶ 2 Kor 6,2.

kin elkartzen gaitu eta Haren jarrera sakonak geureganatzen dizkigu, bakoitzaren bizigiroan bizi eraziz.

Espiritu Santua da, gainera, kristauen arteko lotura, ezberdintasunetik abiatuz batasuna egiten duena, guztien arteko solidaritza eta –une berean– norberaren eta kulturen ezberdintasun utziezinak sustatzen dituena. Gizon-emakumeen nahi handien barnean arnasa ematen ari den Espiritu hori da, gainera, Eliza misio lanera bidaltzen duena eta, Elizarekin, fededun bakoitza. Misi-oak ez ditu, noski, giza nahi handi horiek ahaztuta uzten; jaso eta osotu egiten ditu.

Hau dena aztertuko dugu *Espirituarengan bizitzea* atalean.

IV.- Aita, Seme, eta Espiritu Santu bezala ezagutzen dugun Jainko honek, elkartasunezko bere bizitzara biltzen gaitu Jesukristorengan. Gure Jainkoa maitasunezko elkartasuna da, neurrigabe adoratzekoa, Elizak Hirutasun Guztiz Santuaren izenez deitzen duena. Jesukristori esker, guk ere Jainkoa Aita dugu eta Espiritu Santuak bizi erazten gaitu.

Kristau salbamena, Jainkoaren bizitza guregan bizitzea da, lur honetan hasikin bezala, betiko bizitzan bere osotasunean. Horregatik, gure idazkiak bizitza hori fede begiz begiratzera deitzen du *“Gizakia Hirutasunean”* atalean. Gizakien arteko kristau maitasunak, egiazko maitasun orotan ageri den maitasun horrek, gure historiara ekartzen du, bere baitan maitasuna den Jainkoaren bizitza.

I.- SEME-ALABATZAKO BIZITZA

A. AITARENGANDIK ETA SENIDE ARTEAN

15. Kristau bizitza, Aita on bezala maite gaituen Jainkoaren aurrean bizitzen da, bere ondoan gustura edukitzen eta senide artean biltzen gaituen Jainkoaren aurrean. Une berean seme-alabatzako bizitza eta senide bizitza den horrek, dagoeneko salbamera presenten egiten du guregan.

Jainkoarekin gustura egon

16. Salbamera, lehen mailan, seme-alabatzako bizitza da, Jainko Aitak guretzat duen maitasun horretatik sortzen den seme-alabatzako bizitza. Maitasuna ez da buruzko ariketa bat. Inork ez du bere bizitza ideia hutsez osotzen. Ideiak baino haruntzago geure amodioak dauzkagu, geure joerak, geure zaletasunak. Sentieratik sortzen dira gure lehen jarrerak. Gaizki ikusten dugun batengandik ihes egitea sortzen zaigu berez. Maite dugun pertsonaren gertutasuna maite dugu, ordea, nahiz eta berak ez behartu gertutasun horretara.

Jesusen “Abba” dei horrek¹⁷, aurrena erakusten du, Bera nola sentitzen zen Jainkoaren aurrean. Aita maiteari bezala hitz egiten dio, Berarekin oso gustura aurkitzen bait da¹⁸. Sentiera hau barru-barrukoa da, bizitza sendo ezarri eta zinez zorientsu bihurtzen dion Haren aurrean aurkitzea da.

Senide bezala biziz, Aita ezagutu

17. Esperientzia hau garrantzi handikoa da; garrantzi handikoa delako, Jesusek beraren berri ematen die gizon-emakumei, horien mesedea bilatzen bait du beste ezereen gaitetik. Ikasleekin anaiarte bat biltzen du, senide bezala hartzen ditu eta beren artean senide bezala jokatzeko eskatzen die¹⁹. Giro honetan azaltzen die Jainkoa “Abba” izatearen esperientziaz²⁰. Elkarte giro honek eta Jesusek haiekin biziz sortzen duen espirituak, Aitaz hitz egiten die osmosi bidez bezala, eta esanahi sakona ematen die Hari buruzko hitzari.

Senide bezala bizitzeak erakusten du zer den aita bat edukitzea. Ezin daiteke modu sinesgarrian Jainko Aitaz hitz egin, senide giroa sortu gabe. Sinesmen hori batak besteari eman eta esperientzia bihurtzeko tokia, elkartea da.

Elizak eginkizun hau dauka bere aurrean: bere bizitza eta testigantza, anai maitasunean bizi diren Jainkoaren seme-alaben batzarre bezala azaldu be-

¹⁷ Ikus Mk 14,36; Erm 8,15; Ga 4,6.

¹⁸ Ikus Lk 10,21-22; Jn 17,20-26.

¹⁹ Ikus Mk 10,29-30; Mt 23,9.

²⁰ Jesusen jarraitzaileek eta Haren taldeko direnek entzuten dute Haren ezpainenatik Jainkoa Aita denaren agerpena. Bai Jesusen jarraipenari buruzko esaldiak (ikus Mt 10,27-29. 37-39; 11,20-24; 13,16-17; 23,37-39 eta Lukaseneko paraleloak), bai Aitari buruzkoak (ikus Mt 6,7-13. 25-34; 7,7-11; 10,29-32 eta Lukaseneko paraleloak), ebanjelioetako zatirik zaharrenetakoak dira.

har du; eta beste gizon-emakumeei bizibide hori bera elkarrekin bizitzera dei egin behar die. Eginkizun hau kristau elkarte bakoitzean zehazten da: familian, parrokian, apostolutzako mugimendu eta taldeetan, erlijioso bizieran.

B. SEME-ALABATASUNA ETA OINARRIZKO JARRERAK

18. Fedeak, guregan sustraiak bota eta esperientzia iraunkor bihurtzen duen, sekulako eragina du oinarrizko gure jarreretan. Jainkoa maitasuna dela benetan uste izateak bizitzari konfidantzaz begiratzen erakusten du, nork bere burua onartzen eta ontasuna aurkitzen, aingerukerian erori gabe.

Oinarrizko konfidantza

19. Bere bizitza zentzuz bizi duenak barru-barrutik uste du, beste ezer baino lehen, bizitzeak merezi duela, bizia bait da mundu honetako baliorik nagusiena, nahiz eta gaitzez inguratua eta kutsatua egon. Oinarrizko konfidantza hau ez da lehen mailan adimen kontua. Konfidantza hori sentipen sustraitu eta sendo bezala bizi behar da, baldin eta ilusiorik ezaren zulo sakonean erori nahi ez bada eta zentzurik ezaren eta absurduaren arriskutik babesturik bizi nahi bada.

Ama da, usteon hori eransten digun lehena: *bizi mailako* usteona da, arrazoi mailakoa baino lehen. Emakumearen altzo eta gorputz harrera eskaintzen digu; bere maitasunaren harrera, batez ere, eta gure lehen urratsak zaintzen dituen ardura maitagarriaren harrera. Lehen haurtzaroan gauzak oso ondo atara zaizkigula emanda ere, adin helduan gaitzaren esperientziak oinarrizko konfidantza hori desegitera jotzen du. Zeri heldu orduan konfidantza hori mantentzeko?

Nolanahi ere, beste edozeinek bezala kristauak ere aurkitu behar dituen bere baitako ahalbideekin kontatu behar da. Baina kristauak, Jesusi begiratu, ez du bere azken usteona ahalbide horietan ipintzen, Jainko onarengan baizik. Aitaz fida gaitezke bete-betean. Haren maitasuna, bere sabeleko semea nahiz alaba inoiz ahazten ez duen amarena baino handiagoa da²¹.

Gure Aitaren lehen ezaugarria mugagabeko bere maitasuna da, bere bihotz zabala eta onberatasuna. Badaki zer behar dugun, guk eskatu baino lehen, eta alde zurririk prest daukagu emateko. Gauza onak ematen dizkie bere seme-alabei, lurreko aita batek baino areago. Maitasun gozoz zaintzen gaitu eta gure guztiaz kezkatzen da²².

Nork bere burua onartzea

20. Mundu borrokalari honek gure balioen neurrian bakarrik onartzen gaitu eta, hots egiten badugu, ez digu hain erraz emango beste aukera bat.

²¹ Ikus Is 49,15.

²² Ikus Mt 6,7-8; 7,7-11; 10,30.

Jainkoak, ordea, baldintzarik gabe onartzen gaitu, eta beti berriro hastera gonbidatzen. Berarengana hurbiltzeko, ez digu eskatzen baldintza batzuk bete-tzea, ezta onak izatea ere. Ardi galduaren parabolak²³ garbi erakusten du beka-tariaren bila ateratzen dela, hura noiz damutuko zain egon gabe. Aitaren maita-sunetik dator bihotz-berritzea, eta ez alderantziz.

Jainkoaren maitasun baldintzarik gabeak, geure buruaren balioa estima-tzen laguntzen digu, inoiz ez dugula hots egin esaten ibili beharrik gabe. Hark maite baldin banau, neuk ere estimagarri ikus dezaket neure burua.

Ez dago parabolako farisearrarena egiten ibili beharrik, bere alderdi argiak bakarrik aitortu eta ilunak aitortzen ausartu gabe. Geurearekin aski dugula pen-tsatu nahiak ez gaitu lasaitzen, ez bait dugu geurearekin aski. Ez lasaitzeaz gain, gezurretan bizitzera eramaten gaitu, gure segurantza falta estali ezinik.

Farisearrak ez, baizik eta bere burua bekatari aitortu zuenak lortu zuen bakea. Hauxe da Jesusen mezu bikaina: salbamena bekatariantzat etorri da. Jainkoa Aita on bezala ezagutzeak eraginda, bere burua bekatari aitortzen du-ena zabaltzen da salbamen horretara.

Gure Jainkoak entzuten gaitu, ulertzen gaitu, onartzen gaitu. Barkamena da Jainkoa aita bezala ezagutzeko tokirik aproposena, seme hondatzaileari ger-tatu zitzaion antzera. Aspaldiko kontakizun batek dioenez, monastegi bateko abate gazteak gela luze-zabal bat egiteko agindu omen zuen; gela eguzkitsua zen eta bere hormetan, hizki handiz idatzia, zera irakurtzen zen: “Nik, Jaunak, zure izenez deitzen zaitut. Utzidazu zaren bezala maitatzen”. Gela hartan egon behar izaten zuen, arnasmaldua zegoenak edo bere buruarekin bakea lortu ezin zuenak. Han zeukan eginbehar bakarra, eginbehar pozgarri eta utziezina, hitz haiek errepikatzea zen, bere barruko sentiera hitz haiekin gozatu arte.

Bizitzaren alderdi onak ikusten jakin

21. Gozoki maitatua izan den haurrak, gauza guztiak onak ikusteko joera izan ohi du. Besteez fidatzen da bere bizitzan. Lehen adinean nozitutako gogorkeriak, ordea, moteldu egiten du, ontasuna ikusi eta zabaltzeko gaitasuna.

Jesusek, bere garaiko apokalipsi moldeen katastrofismoaren kontra, Jainko mesedegilearen Berri Ona aldarrikatzen digu, bizitza honetan bertan alaitasuna bideratuz. Hemengo gauzek merezi dute. Mundua Aita onaren egin-tza bezala ikusten duenak, ezin pentsa dezake dena gaiztoa denik.

Kreazioaren edertasuna topatzen eta egintza xumeen handitasuna ikusten irakatsi zigun Jesusek; alargunaren egintza hura bezala, limosna koskor batean, bizitzeko zeukan guztia emanez. Mundu honetako barrutian gordea dago gordailua. Gaitza, neurri batean behintzat, menpera daiteke oraintxetik. Guzti horrek poz handia ematen du. Mundua gaiztotzat joz, bera hobetzeko lan egi-teak ez duela merezi pentsatzen duenaren etsipena, ez da jarrera kristaua.

²³ Ikus Lk 15,4-7.

C. BETIEREKO MAITASUNAK SALBATUAK

22. Gizakia ez da konformatzen bere barruko bizi aldarteak hobetzearekin edota bere barne baretasuna lortzearekin. Bizi honetan inola lortzen ez duen zerbaiten egarri da: bere indar desegileetatik libratu nahi du. Baina hori lortzea giza ahalbideen gaineratik dago, garbi-garbi. Hortxe daukagu heriotza horren oroigarri.

Jainkoak ematen digu egiazko salbamena. Giza bizitzaren hil-beharraren gaineratik, bere Semearekin ari duen maitasunezko elkarrizketan sartuz salbatzen gaitu. Jesusek, Berak bakarrik daukan Aitaren “ezaguera” adierazten digu, eta orduan Aitarekin bizikidetasunean lotu eta gure bizibidearen helmugako argitasuna ematen digu.

Salbatzen duen jakinduria

23. Ez dira gure artean falta, jakinduria edo “argitasuna” eskaintzen dutenak, ekialdeko kutsukoa gehienbat; jakinduria horiek bizimolde berria eskaintzen dute, askoz “salbatuagoa”. Batzuk, filosofia edo erlijio horietara makurtu dira eta, horiei esker, beren bizitza berritua eta salbatua bezala nabaritzen dute. Beste batzuk, horietan saiatu ondoren, iruzurtuak eta manipulatuak sentitzen dira.

Jesusi ere egin zioten galdera erabakior hau: “Maisu, zer egin behar dut betiko bizia iristeko?”. Batzuk Haren eskakizuna onartuz, dena utzi zuten, eta ikasleen taldera joan ziren, han Jainkoa Aita izatearen ezaguera salbatzailea jasotzeko.

Ezaguera hori Jesusek bakarrik dauka eta Berak bakarrik txerta dezake, Jainkoarekin bizi duen harreman bereziari esker. Horrela jakin erazi zuen Berak: “Inork ez du ezagutzen Aita, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi izan dionak baizik”²⁴.

Maitasunez betetako “ezaguera” da. “Nekatuak eta lanpetuak” arintzen dituen bizirako bidea da; Aitarengana daraman bidea, bete-betean Jesusek bakarrik bizi duen elkertasunaren barnera daraman bidea²⁵. Gure bizitzak badu zentzua, bizitza hori Aita Jainkoaren etxerako bidea eginez bizi dugunean.

Jainkoaren ezaguera eta erantzukizuna

24. Badira erlijioak, sektak eta kristautasun ulerkera batzuk ere, barne berri-tzea eskaintzen dutenak, baina historiarekiko erantzukizuna alde batera utziz. Jesusen doktrinak, ordea, ez gaitu bizitzatik urrutiratzen. Jainkoaren eta gizon-emakumenganako maitasunera eramaten gaitu. Jesusengan, zatitu ezinezkoak dira Jainkoarekiko atxikimendua eta Erreinuarekiko grina.

²⁴ Mt 11,27.

²⁵ Ikus Mt 11,28-29.

Barnetasunaren eta erantzukizunaren arteko batasun hau da, Israelen tradizioa bere onean ulertzeko era: Legeak bi taula ditu. Jainkoarekiko harremanak usteldu egiten dira, gizakiarekiko harreman zuzenak baztertzen badira. Erantzukizuna bera, berriz, gogortu eta salbamen kutsurik gabe gelditzen da, Jainko Aitarekiko harremanetara irekitzen ez bada.

Aita nor den ikasten da, ez Maisuaren ondoan bakarrik; Hark bereei emandako eginkizuna betez ere bai. Jesusek bidalitako hirurogeitamabi ikasleen pozak ematen du baduela zerikusia, Lukasen kontakizunari jarraituz, Semeak ematen duen Jainkoaren “ezaguera” horrekin²⁶.

Jesusi esker Aita ezagutzen duena, Jesus bezala bizi da; baina egia da, bestalde, Jesus bezala bizi eta Haren bideari jarraitzen dionak ezagutzen duela Aita.

Neurrigabeko Maitasunaren betiereko elkarrizketa

25. Jainkoaren maitasunean bizitzea, salbaturik bizitzea da jadanik. Izan ere maitasunezko harreman horiek, Aitak eta Semeak bizi dituzten harremanak bait dituzte oinarri eta beroietan itsasten gaituzte. Ez da hemengo bizitzan agortzen. Bestekoan ere jarraitzen du eta han lortzen du bere betetasuna.

Jesusek lur honetan Aitarekin daukan elkarrizketa etengabea, beste elkarrizketa sakonago baten distira da. Semea, betiera guztian, Aitaren “altzoan” bizi da, Haren barne harreman sakonenean, Haren misterioaren hondoan. Ezer izan baino lehen, Aitarekin bizi zen²⁷.

Jainkoa, esanezina, neurrigabea eta mugaezina dena, “ez du inork inoiz ikusi”. Inork ere ez, Bera bezala Jainkoa zenak izan ezik, Semeak alegia. Honek, betidanik Aitarengana itzulirik bizi denak eta Aitaren betetasun bera daukanak, dena Harengandik hartzen du eta Beregan bete-betea adierazten du: Haren Iduri eta Hitza da.

Gure antzeko egin denean, Aitaren Hitz hori gure hizkerara itzuli du. Osorik fida gintezke: Haren Jakinduria da egiazko salbamena²⁸. Gogora ditzagun, Jesusen bizitzako bi une nagusitan, bataiokoan eta antzaldatzekoan, Aitak esan zituen hitzak: “Hau da nire Semea, nire Maitea; Honengan dut neure atsegina”²⁹.

Semearengan seme eta alaba

26. Kristau bizitzaren erroak tinkatzen dira, Aitak bere Seme maitearentzat duen maitasun betiko, aldaezin eta zintzoan. Orain arte zehaztu ditugun jarre-
rak maitasun horretan oinarritzen dira. Seme maitearengan dena eman digu.

²⁶ Ikus Lk 10,17-22.

²⁷ Ikus Jn 1,1. 18; Ef 1,3-6; Jn 17,5.

²⁸ Ikus Jn 1,18.

²⁹ Ikus Mt 3,17 eta paraleloak; 17,5 eta paraleloak.

Harengan bedeinkatzen gaitu, Harengan hautatzen eta barkatzen. Harengan eman digun grazi aberastasuna, gehiegizko oparotasun izan da guretzat.

Jesusengan bakarrik izan ditzake Aitak bere atseginak. Baita guk ere, ba-koitzak, entzuten dugu Aitak nola esaten digun: “zuregan dut neure atsegina”. Zeure barnean, Jainkoak maite duen nortasuna daramazu, oraindik erabat eza- gutzen ez duzuna; nortasun horixe duzu, Aitak zuretzat daukan asmoa eta, bide batez, zuk Haren maitasunari ematen diozun erantzuna. Zarenekin bat egitera iristen bazara, Jainkoa goretsiko duzu eta, Hura maitatzean, zoriontsu izango zara bete-betean.

Jaungoikoaren seme nahiz alaba izena bakarrik ez, baita izana ere bada-ramagu³⁰. Lehenengo gauza ez da Aitari ematen diogun erantzuna. Guztiaren iturburua, Aitak Jesukristorengan izan digun maitasuna da. Behin betirako mai- taturik sentitzea, maitasun hori sendoa dela uste izatea, kristau bizitzaren oina- rrizko berezitasuna da eta gure pozaren lehen iturburua. Garen bezala maite gaitu Aitak, Hark nahi duen bezalakoak izatera iritsi gaituzen.

D. MUNDUARI BEGIRA ETA BERONEN ERANTZULE

27. Jainkoarekin barne harremanetan bizitzeak, ez gaitu eraman behar gure anai-arrebak ahaztera. Ez digu ahaztu erazi behar, mundu hau gizabidezkoago bihurtzen saiatu behar dugula Mundu errespetagarri eta maitagarria egiten saiatu behar dugu, elkarrekin anai-arreba bezala bizi gaituzen bertan.

Jainkoak egindakoa maitatu eta errespetatzea

28. Kristauak ez du mundua alferrikakoa edo estimazio gutxi zor zaion zerbait bezala ikusten. Bere Semearengan maite gaituen Aitak, Harengan gauza guztiak ere ezagutu eta maitatzen ditu. Bere lana du mundua, eta atsegin zaioa³¹. Biziaz ernalduta dago Hitzak, eta bizia eman dio Hitzaren bidez egindako guztiari.

Belar izpi bat begiratzen jakinez gero, bizia topatzen dugu. Era berean, bi- zia topatzen dugu, ogia egiteko, irin, ur eta gatzaz gain, zenbat gauza behar di- ren pentsatzen jarritz gero: gari hazia, hazia ernaltzeko euria, indartzeko eguzkia, labearen erretzeko sua.

Guztia zeruko Aitaz mintzo zaigu, Hark zintzoentzat eta gaiztoentzat atera- tzen bait du eguzkia³². Den guztiak bizia erakusten du: mahai onaren atseginak eta ezkontza bizitzaren gozamenak, itsasoan murgiltzeak eta eguzkitan azal go- rritzeak, gure mendi gailurrak harrapatzeak eta espeleologian aritzeak, han iza- diaren nahikeria zoragarriak gozatuz.

Guzti honen eskutik, fededunak bere Jainkoa ezagutzen du eta Haren mai- tasunaz pozten da. Mundua berritzen ari diren gizon-emakumeengan ere pen-

³⁰ Ikus 1 Jn 3,1-2.

³¹ Ikus Gn 1,10. 12. 18. 21. 25. 31.

³² Ikus Mt 5,45.

tsatzen du, langile izan nahiz injineru, eta hainbat eta hainbaten ahalegin batu horretan parte hartzeko prest jartzen da.

Sinesmenak, ekologi arazoaz kezkatzera eragiten digu. Gizon-emakumeek munduko gauzez gozatu eta baliatu nahi baldin badute, gauza horiek beren onean errespetatzen hasi beharko dute. Izadiaren jaun izateak ez du esan nahi, geure gogara erabil dezakegunik, beraren autonomia eta eskakizunak kontuan izanez baizik.

Izadiko baliabideak, basoak, abereak, uraren eta bizigiroaren gardentasuna babestu beharra dauzkagu, mundu hau guztiok bizitzeko moduko etxea izan dadin. Zuzentasunak badu zerikusia ekologi arazoarekin ere³³.

Zergatik egiten du Jainkoak hain gutxi?

29. Jainkoaren egintza ez dago burutua. Halabeharrez mugatua denez eta gaitzak eta zuzengabeak saminki zauritua dagoenez, beti hobetu daiteke.

Jainkoak gizon-emakumea maite duela eta izadia ere bere maitasunaren emaitza dela esaten denean, galdetu ohi dugu ea zergatik eduki duen Aitak “hain arrakasta gutxi” gu zoriontsu egiteko proiektu horretan. Hondo sakonean betiko galderak erreminten gaitu: Jainkoa benetan ona al da?

Noizbait hitz egin dizuegu gaitzaren arazoaz³⁴. Aztertua dugu zenbaterainokoa den gaitzaren neurria eta zer-nolako zailtasunak sortzen dituen Jainkoaren ontasuna onartzeko. Esan dizuegu fedearen argira jo behar dugula behin eta berriz, arazoaren ilunbea argitzeko, erabat ez bada ere.

Mundua suntsikorra da ezinbestean; munduak badu, gainera, Jainkoak eman dion bere autonomia, inork ez bezala Jainkoak berak errespetatzen duena. Askotan pentsatu ohi denaren kontra, Jainkoak ez du guztia egiten eta ezin du guztia eragotzi.

Printzipio hauetatik argi daitezke onenean zenbaitetan egiten diren galderak, esamolde xalo baten azpian, arazo sakon eta larria adierazten dutenak: ongiaren eta gaizkiaren arazoa, hain justu.

Zenbaitetan eskandaluan erortzen gara, Jainkoak gaitzetik askatu ordez, gaitzaren barnean askatzen gaituelako eta sufrimena salbamen bide erabiltzen duelako. Jainkoa gure alde garbiago azaltzea nahiko genuke, Hark eguneroko gure arazoak konpontzea, lehortearena esate baterako, edota salbamena bizkorrago zabaltzea.

³³ Ikus Joan Paulo II.a, *Paz con Dios Creador, paz con toda la creación*. Pakearen mundu guztiko jardunaldiaren ospakizunerako Idazkia, 1990, I, 1: (*Ecclesia*, 2.456 z. [1989, abenduak 30], 1.929-1.933 or.).

³⁴ Ikus IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaur egun*, Pastoral Idazkia, 1986, Garizuma-Pazko Piztuera, 42-44. z.; Id., *Gizonaren egiazko aurpegi bila*, Pastoral Idazkia, 1987, Garizuma-Pazko Piztuera, 59-63. z.; Id., *Fededun izan federik ezak jotako egunotan*, Pastoral Idazkia, 1988, Garizuma-Pazko Piztuera, 28. z.

Mesedeak eskatzen dizkiogu eta, noski, eska ditzakegu. Baina fedeak, Harren maitasunaren esku bizitzera garamatzen fedeak, ez dauka eskatu duena lortu beharrik, Aita ona beti bere alde daukala jakiteko.

Jainkoa beti lanean ari da munduan

30. Maitasunezko errespetu hori salbu utziz, Jainkoa bera ahalegin bizian ari da mundua hobetzeko lanean.

Une bakoitzean jakin nahi izaten dugu, Jainkoak zer egiten duen gure alde, eta jakin nahi horrek ez digu uzten Jainkoaren maitasunezko arduraren sinesten. Euria hasteko une justuan kotxera igo erazten gaituen Jainkoagan sinestea, horrela gripe batetik babestuz, hori haur mailako fedea izango litzateke. Nietzscheri ez zaio arrazoirik falta, horrelako Jainko irudia gure bihotzetik kentzeko eskatzen duenean.

Baina Bibliak ezagutzera ematen digun Jainkoa, izadiaren eta historiaren Jauna, bizitza maila guztietan ari den Jainkoa, ez da eredu horretakoa. Jesusek esaten digu, Jainkoa maitasunez kezkatzen dela gizon-emakume bakoitzaz, bazkatzen dituen hegaztiez eta apain jazten dituen liliez baino askoz gehiago³⁵. Nire bihotza lasaitu dezaket, salmogileak esaten zuen bezala, “niregatik horrenbeste egiten duen” eta “nire zoria” bere esku daukan Jainko horrengan.

Jainkoarekin lankide askatasun lanean

31. Aitak diharduen lanaren helburua, gu Kristoren moldera egokitzea da, bere Semearen antz-iduriko bihurtzea. Gizon-emakume guztiak Kristo osotua- ren gorputzean bildu nahi ditu eta Harengan baketu gauza guztiak.

Jainko onaren ahalmenak gizonaren erabakiak errespetatzen ditu, baina gure lankidetzara eskatzen digu atergabe. Moisesi ere eskatu zion, zapuzten zuen herriaren gidari izatea onartu zuenean, eta hori, bere familiarekin lasai asko bizi zelarik basamortuko bakardadean eta artzantzaren patxadan³⁶.

Baita Mariari ere, aukeratuari; herri xeheko emakume honek, bere asmoak etengabe aldatu behar izan zituen eguneroko bizitzan, Jainkoaren asmoak onartzeko eta Haren bideak ezagutzeko. Era horretan bere Seme Jesukristori lagundu zion salbamen lanean, Harekin gurutzea sufritzeraino, piztueraren betiko poza eta ospea gozatzera iritsi artean.

Egiazko askatasunez

32. Giza askatasunari egiten zaion dei honek, maitasuna bere mamiaz hustutzen duen gehiegizko gozokeria ezabatzen du. “Abba” horrek ama-xeraz ingurutzen gaitu dudarik gabe; baina, bide batez, aita da, bere seme-alabak errealita-

³⁵ Ikus Mt 6,25-30.

³⁶ Ikus Ex 2,21-22; 3,1.

tearen erantzukizunaz jabetzera daramatzen aita. Munduan daukan eginkizuna betetzera bultzatzen dio. Askatasunera erakarriz maitatzen du.

Kristaua ez da, Aita Jainkoari dei egiten diona bakarrik; Haren deia entzun, eta gauzen eta, batez ere, bere senide diren gizakien erantzukizunera esnatzen dena da kristaua. Sinesmena erregalia da, baina, bide batez, Jainkoak guri egiten digun galdera ere bada.

Jesusek galdera horri erantzuten dio. Mundu honetan sartzerakoan, hala dio: “Hona hemen ni, Jainko, zure nahia egin dezadan”³⁷. Haren bizitza, maitasunak eragindako obedientzi jarrerara sakona da. Ez da arrotza iruditzen zaion eginbehar bat onartzea, “Abba”-rekiko elkartasuna baizik, Haren nahia bait zuen janari. Aitaren “obran” ari da lanean. Aitaren ekintzari laguntzen dio, Harekin barne harremanetan biziz eta bere begiak beti erne edukiz, kasu bakoi-tzean zer eskatzen zaion jakiteko.

Kristauak ere horrelaxe ezagutzen du bere eginkizuna. Munduaren erantzukizuna bere gain hartzen du eta behartsuak maite ditu batipat, bere bihotzeko taupadak Aitarenekin bateratuz.

Jainkoa beti ona dela uste osoa dugu

33. Ez da erraza Jainkoaren ontasunaz seguru egotea. Batzutan galdetzen dugu, zergatik eskatzen digun horrenbeste, eta zergatik ez dizkigun lege errazagoak ematen. Hala egingo balu, saldukeria egingo liguke. Ezin daiteke inor ere zoriontsu izan bizia errespetatu gabe, egiarekin, justiziarekin, biziera garbiarekin zintzo jokatu gabe. Hauek dira maitasunaren egiazko bideak. Gizonak ezin truka ditzake beste bide batzuek. Ezta Jainkoak ere.

Beste batzutan Jainkoaren zigor gogorak asaldatzen gaitu. Jainkoa batzutan Aita ote da, eta beste batzutan epailea? Ez. Haren egintza beti da salbatzailea eta, Aita ona denez, gure egintzek ekar diezaguket “heriotza” eta zorigaitza jartzen dizkigu begi aurrean, Haren maitasun bidetik saihesten baldi bagara. Ebanjelioa, beti gure alde ari den Jainkoaren Berri Ona da. Uste horretaz betetzen den bihotza, lasaitasunez bete da. Maitasun guztiaren Jainkoak agintzen digu, gaitza garaituko dugula azkenean. Denok gaude Jesukristoren piztueran bat egitera deituak. Eta gauza guztietan bada maitasunerako bide bat, bizitza honetan gertatzen den guztia ona ez bada ere. “Gauza guztiak onerako ari dira, Jaungoikoa maite dutenentzat”³⁸.

E. BARNEKOTASUN ERANTZULE BATEN BIDEAN

34. Zenbaiti, eta fededun batzuei ere bai, orain arte eman ditugun ikuspuntu hauek, idealistak irudituko zaizkie eta egunero bizi dugunetik urrunduak.

³⁷ Heb 10,7.

³⁸ Erm 8,28.

Beste askok, berriz, ikuspuntu hauek bizi dituzte eta horietan zorion sakona topatzen dute. Nola lortu, horiek geure bizikizun egitea? Bi bide ematen dizkizuegu.

Otoitz egiten ikasi

35. Jainko Aitaren presentziaren eta historia barruan ari duen egintzaren barne esperientzia bizi ahal izateko, otoitz egiten ikasi behar dugu³⁹.

Gaur egungo kulturak sakabanatzera jotzen du eta barne arreta oztopatu egiten digu. Hala ere, badirudi espirituzko bizitza jatorraren eskea ugaltzen ari dela. Kristauak desafio handia dauka honetan: kontenplazioarako gauza izango den bihotza landu behar du bere barnean, eta bere kontenplazio esperientzia eskaini behar die bere senide dituen gizon-emakumeei.

Lan horrek bere denbora behar du. Aurrerapen handia egin dugu, otoitzaren eta bizitzaren arteko bikoiztasuna bideratzen: otoitza bide batetik zihoan eta bizitza bestetik. Ezinbestekoa da otoitza eta bizitza batasunean ikustea. Baina dena otoitza dela –hobeto esanda, “izan daitekeela”– pentsatzearen aitzakiaz, inoiz ahaztu egiten dugu, bizitza guztia fedearen argiz argiztatu ahal izateko, denbora eman behar zaiola Jainkoarekiko barne harremanak bizitzeari.

Gainera, Jainkoarekin hitz egitea, Hari gure denbora ematea, maitasun jatorraren nahirik sakonena da. Jesusek bere jokabidez erakusten digu hori⁴⁰.

Jainkoaren hitzaz janaritu behar da otoitza. Horretarako bide bat, igandeko homilia eta beste prediku motak arretaz entzutea da. Baina heziketa ere beharrezkoa da, Liburu Santuak ikastea eta gure bizitza eta kulturarentzat fedeak duen esanahi sakona aztertzea.

Otoitzak ere heziketa behar du. Otoitz egiten irakatsiko duten maisuak behar ditugu. Apaiz eta erlijiosoei eskatzen diegu, ez dezatela beren bokazioaren garrantzizko alderdi hau ahaztuta utz, kristau guztiak bait gara bokazio horretan partaide.

Jainkoaren bideak bereizi eta jarraitzea

36. Jainkoarekin elkarlana egiteko, gaur Haren bideak zeintzuk diren jakin beharra dago. Garaien zantzuei adi-adi bizi behar da horretarako. Gure kulturaren bereizgarriak arakatu eta gure garaikoen itxaropenei arretaz erantzun behar zaie. Arrazoimena eta teknika ahalbide egokiak eta Ebanjelioaren argia erabiliz, zer sustatu behar den, zer garbitu eta zer ukatu, ikusten saiatu behar da. Ondoren etorriko da ekintza saiaturia, iraunkorra, errealitatearen egiturari dagokion ekintza leiala: Jainkoak gure historian ari duen lan etengabe eta apala jarraitzen duen kristau ekintza.

³⁹ Ikus Lk 11,2.

⁴⁰ Ikus Mt 14, 23; Lk 3, 21; 6, 12; 9, 18. 28-29.

II.- NIRETZAT, BIZITZEA KRISTO DA

37. Gotzain Idazki honen hasieran ikusi dugunez, Kristo topatu ondoren eta Haren indarrez, kristaua Jaunaren asmoari itsasten zaio: maitasunaren bidez mundua aldatzeko asmoari, alegia; eta bere gain hartzen du munduko sufrimennen gurutzeta; izan ere, piztuerako pozetan blai egina bizi denez geroztik, itxaropenaren bide gertatzen zaio gurutzeta hori.

A. MAITASUNA, ERREINUKO LEGE NAGUSI

Maitasunaren alde ala aurka?

38. Zenbaitek uste izaten du, gizartea, batez ere aginte indarra eta ekonomi ondasunak erabiliz eralda daitekeela.

Jesusek ez digu eskatzen bide horiek arbuizatzerik; baina Berak, Jainkoak bidalitako Mesiasen eginkizuna betetzerakoan, baztertu egin zituen biak ala biak⁴¹. Izatekotan ere, norberaren probetxurako ez, baizik eta besteren onerako erabiltzen erakusten digu; hori izan zen, hain zuzen, Jesusen beraren bizibidea. Solidaritza eta zerbitzu jarrera tinko batez erabiltzen ez badira, aginte indarrak eta diruak geurekoikeriara eramaten gaituzte, eta besteak zapaltzeko modu gertatzen dira.

Asko aitatu ohi da “maitasun” hitza. Baina, sarritan, bere onetik aterata erabiltzen da. Izan ere, azal horren pean, norberaren atsegina eta berehalako interesa lortzeko gogo bizia dago askotan. Hala ere, mundu guztiaren ametsa da, benetako maitasunera zabalik egotea, norbere buruaz ahazturik eta besteren onari begiratu.

Gai honi buruz, Jesusek hitz nahiko ulergaitzak esan zituen: “Bere bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du; baina bere bizia Niregatik eta berri onarengatik galtzen duenak, salbatu egingo du”⁴². Inor gutxi da, neurri horretaraino maitatzeko gauza denik. Bizia emate horrek beldurra sartzen digu, eta masokista pentsamoldera itzul erazi nahi gaituela iruditzen zaigu.

Azken urteotan asko dira diotenak, gizakiaren zorionerako traba delako utzi omen dutela erlijioa. Izan ere, inoiz kristau bizitza sufrimenaren ikuspegitik azaldu izan dugu. Hala ere esan behar da, gero eta indar gehiago hartzen dela beste iritzi bat: kristau izan, gizabidezko den guztiaren alde jokatzen duena dela kristau.

Gizaki izateko era berria

39. Azken batean, oinarri-oinarrian bi pentsamolde desberdin daude jokoan, bi arazo hauei buruz: zer den, alegia, maitasuna eta zer gizakia. Bata, bere burua aitortzen eta besteren beharrik ez duela uste duen gizakiarena. Bere burua jar-

⁴¹ Ikus Jesusen tentaldiei buruzko pasarteak (Mt 4,1-11) eta ogi ugalketaren ondorengo hitzaldia laugarren ebanjelioan (Jn 6).

⁴² Mk 8,35 eta paraleloak; Jn 12,23-25.

tzen du gauza guztien gainetik, eta besteak horretarako bide eta tresna huts bait liran erabiltzen ditu. Bigarrena, alderantziz, bere burua besteentzat eskainiz gizaki egiten ari denarena. Hauetako asko, beharrea daudenei emanak, benetan emanak, bizi dira, eta horretantxe aurkitzen diote beren bizitzari zentzu betea. Besteiei emanak egotean aurkitzen dituzte beren buruak.

Vatikano II.ak humanismo berri bat aipatzen du: “Gizakia zer den, bere senideetaz eta historiaren aurrean hartzen duen erantzukizunak argitzen du batez ere” (*Gaudium et spes*, 55 z.). Zenbait pertsona xume, filosofia asko egiten ari gabe sartzen dira, norik bere burua besteren zerbitzuan jartzearen humanismo honetan. Atsegin zaie elkarrekin bizitzea eta zabalik daukate beren atea, ez bakarrik beren modukoentzat edota laguntzera datozkienentzat, baita premia gorrian daudenentzat ere. Buruhauste handitan sartu gabe, Jesusek guregatik bizia ematean erakutsi zigun baldintzarik gabeko maitasun osoa bizi dute. Jesusi ez zion inork bizia kendu. Berak eman zuen, askatasun osoz eman ere.

Ordainik eskatu gabe maitatze hori ez da, Jainkoak harrokeriaz gizakiari ezarri betebehar bat, horrela Bera gizakiaren gainetik dagoela ikustarazteko. Aitaren aholkua da: egiazko geure izaerara iristeko bidea erakusten digun Aita onaren hitza.

Kontua ez da, lehenengo bagarela eta gero geure burua eskaintzen dugula; besteiei emate horretantxe gara izan. Egiazko gure izaera ez dago geure burua guztiaren ardatz egitean. Besteekin harremanetan sartu eta, beti ere laguntzeko prest, bestarenganako zubi izate horretan oinarritzen da gure nortasuna, besteari atera geniezaiokeen probetxuaren gose-egarri bizi gabe.

Solidaritza, egiazko askatasunaren osagai

40. Gure gizarteak duen hutsunerik nabarmenena, beharbada, hauxe izango da: norik bere buruaren aitormenean jartzea lehenengo oinarria; besteekiko harremanak, berriz, bigarren mailan bakarrik jartzea eta, gehienez ere, lehenengoaren eranskintzat hartzea.

Gizakiari buruzko iritzi honek norbere segurtasunaz gehiegi arduratzera darama, nola giza banaka ala taldean; eta hori gizadiaren gaitz handi hauetan nabaritzen da: armamentuen norgehiagoketan, herriak, baita kontinente osoak ere, beste herri batzuen ekonomi zorpean edukitzean, etab. Dena gutxitxo iruditzen zaigu geuretzat; ondorioz, babestu egiten ditugu geure buruak besteengandik, eta beraiek behar dutena ere kendu egiten diegu.

Maitasunaren aginduak gizakiari beste gizakiaren ardura ematen dio eta, batez ere, beharrea dagoen beste gizakiaren ardura. Agindu hori ez da, beraz, kristautentzat bakarrik. Zera adierazten du: bere gauzak ezezik bere burua ere besteri ematen dionean dela gizona gizon egitura jatorrean.

Horrelakoarekin bat egiten du Jesusek: gose nintzen eta jaten eman zenidaten. Nire senide diren txiki hauetako bati egina, neuri egin zenidaten, nahiz eta neu haiengan ez ezagutu⁴³.

⁴³ Ikus Mt 25,35. 40.

Askatasunak, inor ez behartzea eta kanpoko nahiz barruko trabak gainditzea den partetik, nor bakoitzaren eta herrien lilura sortzen du. Baina solidaritza ez da askatasunaren eranskin bat, kanpotik eta era gogaikarrian mugatuko balu bezala. Askatasuna benetako egiten duen barne osagai bat baizik.

Inor bada eta, Paulo borrokatu zen, bere kristau askatasunari jartzen zizkioten hesiak eta trabak apurtzen. Baina oso ondo ulertu zuen berak askatasuna: askatasunak ezin dezake norberaren aitormena sendotzea helburu izan. Maitasunez elkarri zerbitzu egiteko gara aske⁴⁴.

Askatasun horren eredu Jesukristo da. Jainko izanik, bereaz hustu egin bait zen; eta gizon bezala agerturik, menpeko egin zen gurutzeko heriotzaraino. Jesukristorengan ikasi behar du kristauak, nolako asmoz oretuak izan behar duten gizakien arteko harremanek, eguneroko harreman zehetarainoko guztiek⁴⁵.

Norberarenganako ondo ulertutako maitasuna

41. Hala ere, behartsuei laguntzeko garaian, norberarengandik eta norbere familiakoetatik hasi behar dela, diote askok. Eta horrekin batera esaten du, Jesussek, bere agindu berria ematerakoan zera agindu zuela: “Maita ezazu zeure lagunurkoa zeure burua bezala”⁴⁶.

Bai, hala da. Gizakiak, ontasuna eman baino lehen, hartu egin behar du. Jainkoak bere presentzia gozoa, izadiko ondasunak eta, beste gizakien bidez, mila gauza eskuratzeko poza ematen digu. Bidezkoa eta beharrezkoa da guzti horietaz poztea.

Batzutan, beste gizakiekin solidaritza izan behar bihozkorra predikatzen da; eta badirudi, mundu honetako zuzengabekeria guztiak konpondu eta gizaki guztiak berdin-berdin jartzen ez diren bitartean, debekatua dagoela alaitasun guztia. Egia da, zapalduen egoerak eta gizakien zoritxar guztiek gurutzean josten dutela gure alaitasuna. Baina, hala ere, alaitasun horri eusten eta indartzen saiatu behar dugu, besteei poza eman ahal izateko.

San Paulok berako⁴⁷, Jerusalengo Elizako behartsuen aldeko diru eskea egiterakoan, eskuzabalak izateko eskatzen die bere kristauei; eta esaten die, gainera, asmoa ez dela besteak lasaitzea eta, bien bitartean, berberak estu eta larri ibiltzea. Hala ere, goraiatu egiten ditu, ahal dutena eta gehiago ere ematen dutenak. Eta horixe da, noski, geurekoikeriaz nor bere barruan gorderik egoteko eta ez besteri eskuzabalez emateko joera dugun gizakiok erabil dezakegun neurri bakarra.

⁴⁴ Ikus Ga 5,13.

⁴⁵ Ikus Flp 2,1-11.

⁴⁶ Mk 12,31. 33; Lk 10,27.

⁴⁷ Ondoren esaten direnetarako, ikus 2 Kor 8-9 passim.

Jainkoak gainezka ematen dio eskuzabalez ematen duenari. Horregatik, pozik eman genezake, jakinik, inor baino emaile hobe delako gure Aita ona. “Zeure burua bezala” hori ulertzeko erarik onena zera aitortzea da: geure burua ematen dugunean bakarrik iristen garela neurri horretara.

Bide horrek aurrera egiten du “bizia galtzeraino” eta, Jesusek egin zuen bezala, lagunengatik emateraino. Jainkoak horrela agertzen dio gizakiari gizakia zer den: bere buruarekin bat eginik egoteko era bakarra, etengabe bere baitatik atera eta besteengana hurbiltzea da.

Geure burua emate horren maiztasuna Aita on eta arduratsuak finkatzen du, bizitzako gorabeheren bidez; ez digu behin ere eskatzen, benetan geure esku dagoena baino gehiago; eta, une berean, geure esku dagoen hori sakonago aztertzera dei egiten digu etengabe.

Maitasunezko harremanez txikordatutako mundua

42. Goitik, aginte guneetatik, eraikitako mundu hau, ezin daiteke zorioneko izan. Gehiengoaren parte hartzea faltako luke. Beharrezkoa da behetik ere eraikitzea. Bere baitan itxia dagoen “ni” hori besteengana zabalik egongo den “ni” bihurtzea, eguneroko bizimodu “isilean”, etxeko elkarrizketa xumeetan, lantokiko harreman estuetan, egin behar den gauza da. Zoriontasunetako espirituak hor blai egin behar du bihotza. Haiek erakusten bait digute, maitasunezko kristau bidea, aldi berean, bizitzarekiko eta haren eskakizunekiko leialtasuna dela sakon-sakonean.

Horixe nabarmentzen du, bihotz otzanei buruzko zoriontasunak. Indarkeriarik erabiltzen ez dutenen otzantasuna, gizartea eraldatzen duen egiazko indarra da. Aintzakotzat hartzekoa da, zenbat zor dion gizadiak, indarkeriarik eza eta giza askapena, biak batera, aukeratu dituzten pertsona eta taldeei. Pozik hartzen dugu ikustean, orain ere badaudela gure artean horrelakoak.

Yahveren Zerbitzaria⁴⁸ da otzantasunaren eredurik bikainena. Jaunak ematen dion espiritua Haren baitan kokatzen da, eta Beronek eragiten dio ekitera. Ez da behin ere, gauzak azkarregi, dagokien abiada errespetatu gabe, aldatu nahiaren neurrigabekeria erortzen. Ezerk hausten ez dizkion indarra eta iraupena ditu; bakea sortzeko asmo sendoan, ez dio ezerk atzera eragiten. Erne dabil, beti ere, biziaren txinpartak non sortuko, eta haize ematen die txingar hautsei nonahi.

Indarkeriarik ezaren aldekoek Jainkoaren pausora moldatzen dute beren pausoa. Jainkoa, ezer aurrean hartu eta eramanez gabe, ezarian-ezarian dena busti eta urasetzen duen ibai oparoa bezala dator guregana, bizi berria sortuz.

Bihozbera eta otzana den Jesusi jarraitu nahi diotenak, egunero eta orduero, bihotz-berritze sakon bat daukate egin beharra; horrela bakarrik iritsiko bait dute, gaurko munduak hain berea duen “den-dena eta oraintxe bertan” lortu nahi hori alde batera uztea.

⁴⁸ Ikus Is 42,1-7.

Otzanak dira, bihotzetako bakearen eta, pertsonen eta herrien askatasuna sortzen duen, gizarteko bakearen benetako egile.

Zorionekoa zu, sinetsi duzulako

43. Zoriontasunetako bide hori, Ebanjelioko irudi bizia den Mariarengan zehazten zaigu eta begietatik barrena sartzen. Yahveren behartsuen artean behartsu da Maria. Jainkoagan jartzen du bere uste osoa, umil eta xalo ikusten du, berari egin dizkion gauza harrigarriak, lurreko ezerezen alde gizaldiz gizaldi ari duen askapen lanaren jarraipen direla.

Bere “Magnificat” kantua gauza batetaz konturatzera eramaten gaitu: aberats eta indartsuek sortzen dituzten zapalkuntzen oinarrian, bihotzeko harrokeria dagoela. Bere burua ardatz bihurtu eta mundu guztia ardatz honen jirabirako gupil izatea nahi duenak, ahaleginak egiten ditu ondasunak eta agintea bereganatzen; ez ditu besteak aintzakotzat hartzen; daukaten guztia kentzen die; eta bere morroi egiten ditu.

Nazaretoko Mariak badaki zer den malkoen samina, batez ere Simeonek esan bezala, gurutzaren oinetan ezpatak aldeanik alde bihotza zulatu dionean. Baina itxaropenez eta solidaritzaren eraginez egiten du negar.

Erraietaraino sartzen zaio besteen premia, eta prest dago edonori laguntzeko. Ez bakarrik bere lehengusu Isabeli edota Kanako ezkonberriei. Ama errukiorrak ezagutzen du bekatuaren latza. Are gehiago du ezagutzen, bera erruga-bea delako. Eta bere Semearekin fedean bat eginik, bekatariak salbatze lanean laguntzen dio.

Birjina garbia da Maria, bihotz garbia eta xumea duena, begiratu xalokoa, asmo txarrik gabekoa. Jainkoaren nahia betetzea da beronen gogo bizia eta bizitza guztia. Eta horregatixe, inork baino gehiago nozitzen ditu zuzentasunaren gose eta egarria. Erasoaldian ez du atzera egingo. Sinetsi duelako izan da Maria zorionekoa; zoriontsua, alegia, pozik bizi dena. Baina Jesusek, bizitzeko bere moduz, bere eskuzabaltasunez, Aitarenganako bere irekitasunez, besteei emana bizitze horrekin, Jesusek mundura ekarri duen zorionez bizi da pozik.

Birjina zoriontsua da Maria. Bere fedeak bere buruaz zeharo hustu eta Jainkoarengana zabaldu zuen erabat. Jesusen zerbitzura jarri zuen eta, Beronen bitartez, ikasleen Eliza berriaren zerbitzura eta gizaki guztien zerbitzura. Bere bizimodu ximple hartatik, alaitasunaren Ama dugu. Alai bizi da eta alaitasuna zabaltzen du bere inguruan.

Gizarteko bizikidetzaren aldaketa maila guztietan

44. Maitasunak ez ditu pertsona eta hurbil-hurbileko bere harremanak bakarrik aldatzen. Kristauak, edozein hiritarrek bezala, bera bizi den gizarte inguruan sarturik bizi behar du. Horretarako, batzuen eta besteen iritziak entzunez, eta egoera ahalik eta ondoen aztertuz, egiaz gertatzen ari dena ezagutu behar du.

Hori da, iritzi publikoa osa dadin eta jendeak jokabide zuzena har dezan, erantzukizunez parte hartzeko modu bakarra. Beharbada, ezin izango du gauza handirik egin; baina horrexegatik, egin dezakeen apurra alferrik gal ez dadin saiatu behar du. Egintza txiki batek, egoera jakin batean, erasan handia izan dezake.

Jesusek baztertuta dauden bekatariekin jaten duenean⁴⁹, ez du beste munduko gauzarik egiten. Erraz egin zezakeen zerbait egiten du. Baina ingurugiro hartan eta Bera dena delako, izugarrizko indarra hartzen du salaketa horrek. Ohartu ziren, bai, agintedunak, eta aintzakotzat hartu zioten salakuntza.

Horrelako gauzak egin ahal izateko, ordea, arazoei bizkar emanda arinke-riaz bizitzeko joera gainditu beharra dago. Ez dira asko hori egiten dutenak eta, horregatik, iritzi publikoa gehienetan lokartua dago, eta jendeak agintedunen betiko leloak errepikatzea besterik ez du egiten.

45. Gizarte guztiak bazterturik zeuzkanekin otordu egite horrek san nahi du, begirada zorrotza duela Jesusek eta ohartu dela, Yahveren Legearen edukia markurki aldatua dagoena. Izan ere, solidaritza sortzeko emana izan zen Legea, gauzak dauden daudenean egoten utziz, baztertuak sortzeko erabiltzen da eta, gainera, baztertuen alde ezer egin beharrik ez dagoela esan erazten zaio.

Jesusek salatu egiten du egoerari hori eta, aita onaren parabolaren bidez, bere jokabidearen arrazoiak ematen ditu⁵⁰. Seme hondatzailearen anaia zahar-rrak gogortua dauka bihotza eta ez dio axolarik bere senidearen zoriagatik. Hor-txe adierazten du Jesusek, bere arteko behartsuengatik bost axola zaion gizarte zeken baten jarrera gogorra. Horrela jokatzan baduzue, esaten digu Jaunak, sinestedun ez zaretela erakusten duzue; izan ere, hain ona den Jainkoak beste zerbait espero du zuengandik. Ez da demagogiaz gauzak bere onetik ateratzea izango, lehenengo munduko gizaki asean, bere lanez eta eginahalez iritsi dituen ondorio teknikoetaz harro dagoela esatea; baina gogortua daukala bihotza har-ria bezala, behar-beharrezkoa ere eskas duten gizaki eta herrietaz arduratzeko.

Herrien arteko solidaritza

46. San Paulo da, oraingoan ere, Jesukristok emandako aginduak zer-nolako ondorioak dituen herrien arteko bizikidetzari dagokionaz, ohartu dena. Aposto-lua, kristautasuna judutar kulturari lotuta uzateari uko egiten dionean, eztabai-dan zegoen puntu zehatza askoz haruntzago doa. Izan ere, kristauek, Jainkoaren herriko zirenaren seinaleztat, erdainkuntza egin behar zuten ala ez, zen eztabai-dan zebilena.

Grekoen eta judutarren kulturak hain desberdinak izan arren, garbi ohar-tzen da Paulo kristautasunak duen barne bizitasunaz, bi kultura horien artean harremanak sortzeko. “Kristo da gure bakea –dio–; bat egin ditu Berak bi he-

⁴⁹ Ikus Lk 15,1-2.

⁵⁰ Ikus Lk 15,11-31.

rriak, haiek bereizten zituen hesia –gorrotoa– ... urraturik; ... bi ziren haietatik gizaki berri bakarra sortzeko”⁵¹.

Jo eta bota dute Berlingo harresia. Herrien arteko batasunerantz daramagun bidean itxaropen aldia bizi du oraingoan gizadiak. Une berean, ordea, hor daude edota indarberritu egin dira nazionalitateen arteko istiluak. Herri bakoitzari dagokion autonomia ukalezina zabalik dago, berez, beste herrien autonomiara; besteengandik asko hartzen duela konturaturik, bere ondasunetatik beste ematea dagokio bakoitzari.

Galdera bat egin behar diogu geure buruari: zeintzuk diren, alegia, gure bihotzetan dauzkagun eta jo eta bota behar ditugun harresiak. Jesusek tresna egokia bihurtu du gurutzera, herriak elkarrekin adiskidetzeko; gurutzearen indarrez, herriak adiskidetze lan horretan saiatu behar dugu kristauok.

B. GURUTZEA, ITXAROPEN BIDE

47. Gizarteko bizikidetzaren eraldatzeak eta herrien arteko solidaritzaren alde lan egiteak, berekin darama, derrigor, ukamena eta sufrimena, maila batean bederen.

Kristoren nekaldia, kemen iturri

48. Jesusek uko egin zion lasai eta arazorik gabe bizitzeari, eta edozein gaitzez sufritzen zeudenengana inguratu zen: behartsu, gaixo eta baztertuengana. Baina gizarte hark pertsona horiek guztiak bazterturik zeuzkanez, zapaldu beharrak zeuzkan, jokabide hori onartzen ez zuten guztiak.

Jesus gurutzearan josi zuten, ez gaizkiaren alde jartzeagatik; gaizkia nozitzen zutenen alde jarri zelako baizik. Gure Jainkoak ez digu oinazea eta heriotza maitatzera bultzatzen, zenbait horren beldur bada ere. Ez gaitu eramaten, bizitzako alderdi txarrak, onak eta baikorrak direla esatera.

Jaunaren eskuzabalaren handiak indarberritu egiten ditu, Haren jarraibide ona aintzakotzat hartu eta beren eredu bihurtu nahi dutenak. Nekaldiak ez gaitu oinazearen morroi egiten. Indar ematen digu, oinazearen aurka borrokatzeko.

Historiako kaltetuen alde jartzea

49. Zenbait gauza ez jakiteko joera daukagu denok ere; joera erruduna, hain zuzen. Prentsa, irrati eta telebistak sarritan ematen digute ezagutzera zertxobait, hirugarren munduko egoeraz; baita geure hirietako baztertuez ere. Baina albiste horiek entzun ondoren, geure arazoetara itzultzen gara berriro.

⁵¹ Ef 2,14-15.

Axolarik gabe igarotzen gara geure hirietako ospitale handien aurrean; ez gara gauza geure zaharrekin batera bizitzeko. Jo eta ke ariko gara eztabaidan oinarrizko gure hogeitabosgarren eskubideaz, eta ez gara gogoratzen, bizirik irauteko beharrezkoena ere falta dutenetaz; hirugarren munduko haurrak sabeleko beherakoak hiltzen ditu; ez dira hiltzen agertu berria den azkeneko gaitzez, gure gizarteak aspaldi menperatua daukan gaitz batez baizik.

Jesusek esan zigun, behartsuengan aurkituko genuela Bera. Behartsuengana joan zen, guk beraiengan aurki ahal genezan. Jainkotasuna ezkutatu egiten zaigu. Nekaldian, historiako zapalduen eta erasoen kideko egiten du bere burua. Hori da benetako Kristo bakarra; behin ere ez dugu geure Buru dena aurkituko, Haren gorputzeko ataletaz arduratzen ez bagara.

Ezinaren azpian zapalduta?

50. Gizadiaren arazoak gure gainera datozkigunean, lur jota uzten gaituzte. Jauna ere halaxe gertatu zen Getsemanin. Izua sentitu zuen, hurbil zeukan oinazearen eta heriotzaren aurrean. Gainera erori zitzaizkion, hurbilenak zituen ikasleen ahuleria eta ulertezina, bere herriaren esker txarra, herriko agintarien itsukeria; hitz batean, gizakien bekatua. Jesusek bere haragian nozitu zuen, hozka bat bezala.

Getsemani, bere arazoak konpondu ezinik estu eta larri dabilen gizadian luzatzen da: langabezia dela, droga, SIDA... Arazo askoren atzean, norberekoieria eta gizakien bekatua sumatzen da.

Kristaua bera da lehenengoa, gaitzaren aurka protesta egitera altxatzen dena. Fededunen eredu den Jobengandik ikasi du, axaleko esplikazio merkeekin ez etsitzen. Eta batez ere Jesusengandik ikasten du. Jesusen larrialdiak, gaitzetsia izan denaren oihuak, mundu guztian sufrimendutan daudenekin solidaritza izateak, gaitzaren arazo hau zein latza den adierazten dute; eta Jainkoa nolako sakontasunez arduratzen den hortaz. Sufrimenaren, oinazearen eta zuzengabekeriaren aurka borrokan ari direnekin, han ari da kristaua ere. Jainkoa guztion Aita dela sinesteak eta Jesusen jarraibideak horretara bultzatzen dute eta indar berriak ematen dizkiote.

Jesusek Getsemanin bezala, bere ezina nabaritzen du kristauak ere. Ezin dira arazo guztiak konpondu, nork bere esku daukan guztia egiten duela ere. Gure indarrak hutsaren hurrengo direla, eta Jainkoa isilik eta geldi dagoela ikustea jasan ezina egiten zaigu. Aitak zergatik ez digu kaliza baztertzen? Jesusi bezala, estuasunean galdera larria sortzen zaio kristauari ere: “Ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?”.

Baretasuna berreskuratzea borrokan jarraitzeko

51. Jesus ez zen etsipenean erori une ilun hartan. Hiltzorian otoitz egin zuen luze; eta, horrenbestez, borroka ondoren baretasuna berreskuratu. Laugarren ebanjelioak azpimarratzen du gehien, nolako jauntasunez hartzen dituen Jesusek bere nekaldiko sufrimenak. Baina sinoptikoak ere bat datoz funtsezko datu

batean: Jesusek inork baino gehiago sufritzen duela, baina oinazeak ez diola lur jo erazten.

Azken orduetan ere Aitarekin hizketan ari da. Aitak ez du sufrimenetik jaregin; baina bai bere ondoan egon. Arretaz begiratzen ditu Pedro, negarrez dabiltzan emakumeak, gurutzean josten dutenak, bere ama... Bere kausa defendatzen du; galde eta galde ari zaizkionean, burutsu tartekatzen ditu isiluneak eta erantzunak, Pilatori bere jokabidea salatzen dio...

Ezta Jesusek berak ere, ez zuen argitu ahal izan munduko gaizkiaren arazoa, bizi zen artean. Baina Getsemaniko krisialdian, otoitzaldi luze bat egin ondoren, indarberriturik atera zen, gizabidezko den guztiaren alde lanean jarraitzeko.

Nahi genukeen on guztia ezin eginak estuasun latza sortzen digu batzutan; baina kristauak, Jesusen gurutzean parte hartuz, gauza bat ikasten du Harengandik: gizakiok ezin dezakegula dena konpondu. “Ez nabil gauza handien atzetik, ni baino gorago dauden harrigarrien atzetik”⁵². Hala ere, atetxo bat zabalitzen zaigu beti gure aurrean, onaren alde lanean jarraitu ahal izateko. Ate horretatik sartzea dagokigu, nahiz eta gure esku ez egon arazo guztiak konpontzea.

Umeminetan

52. Gero eta aiton-amona zahar gehiago dauzkan gizarte honek, aintzakotzat hartu eta zaindu egin behar ditu; ez bazterrera utzi. Berauekin batea, galdera egin behar dio bere buruari, zernolako azken esanahia duen bizitzak eta heriotzak. Bizitzaren azken aldian, dena gainbehera datorrela dirudi. Iritsitako heldutasuna ere erori egiten da. Heriotza da azken hondamendia. Merezi ote du bizitzerik?

Gizakiak, eginahalak eginda ere, ezin ditu desegin ahuleria, sufrimena eta, batez ere, heriotza; baina Jainkoaren salbamenerako irekitzen zaigun azken atea gerta daitezke. Hori erakusten digu gurutzeak. Jesusek estuasun latzak pasatzen ditu, gaitzetsia izan denaren oihua ateratzen zaio; baina bere Espirituaren barru-barruan Aitarenganako konfidantzari eusten dio: “Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua”⁵³.

Zeharo biluzik dago Jauna, eta bere giza bizia ere utzi egiten du azkenean. Aitari ematen dio. Aitaren eskuetan jartzen da, dena Harengandik hartzeko. Horrela adierazten du bere seme izatearen semetasuna. Aitak ez dio huts egiten. Berrito Seme egiten du berpiztearen indarrez.

Sufrimenduak, baztertu ezin dugun oinazeak batipat, eta batez ere heriotzak, mugak eta neurriak jartzen dizkigute begien bistan. Hara zer egokiera, gurutzean josita dagoenari begira, geure baitan itxi erazten gaituen geure buruaren aitormen geurekoia uzteko behingoz, hori baita bekatuaren muina. Orduan jaiotzen da gudan berriro senidea eta semea edo alaba. Aitaren maitasunari es-

⁵² Sal 130/131, 1.

⁵³ Lk 23, 46.

kuak libre uzten dizkion semea; eta bere buruaz ahazturik, besteen onaz ardura-tzen den senidea.

C. BERPIZTUERAREN POZ BETEA

Biziaren garaipena

53. Gotzain Idazki honen hasieran, gure garaiotan itxaropenaren bizigarri di-ren zenbait alderdi aitatu ditugu: herriak askatasunaren alde jarri dira. Bakea-ren aldeko mugimenduak indar hartzen hasi dira, baita bortxakeria menpera-tzeko erantzukizunez elkar hartzea ere.

Langabeziaren aurrean ere, batez ere gazte jendearena denean, gero eta sentiberago gara. Guztiekiko kontzientziak ez du onartzen arraza bereizketa, ezta beste zenbait baztertzeko modu ere. Nazio arteko ekonomi alorrean dagoen zuzengabekeria, eta hori sortarazten duten egiturak salatu egiten dira; eta soli-daritzarik ezak behartsuago egin dituen herri eta kontinenteen alde mintzatzen dira.

Gertaera hauek eta aipa daitezkeen beste zenbait, alderdi baikorrak dira, gizartea eta pertsona bakoitza gizaerako egite bidean. Kristauak ontzat hartzen ditu, eta hala balioztatzen. Sinesturik bait dago, guk espero genezakeen baino askoz hobea den, eta Jesukristoren berpiztuerak segurtatzen digun, mundu berri horretan murgilduko direla gertakizun horiek. Gure fedea biziaren ernamuin guztiak aurkitu, estimatu eta indartzera bultzatzen gaitu.

Kontzilio ondorengo Eliza honetan ere badaude beste alderdi baikor batzuk: liturgiaren berrikuntza, Bibliaren ezaguera zabalagoa, laikoen nortasuna-ren aitortpena, eta Elizan eta munduan duten zeregina aintzakotzat hartzea; kristau elkartearen erantzukizun eta parte hartzea; munduko gauza onen balioz-tatzea Elizaren aldetik, edota, garaiko zantzueta Jainkoaren ahotsa entzuteko Elizak egiten duen ahalegina.

Berpizte aroan dagoen Elizaren alderdia izango litzateke hori. Egia da, bai, Espiritua intzirika ari dela, eta trabak aurkitzen dituela. Kristaua, ordea, ez da atzera begira bizi. Gogoberritzen laguntzen diote traba horiek; badaki itxaroten, eta zer onik azalduko zain dago, itxaropenari bide berriak irekitzeko.

Berpiztearen indarrez

54. Horregatik, benetako kristauak ez du etsitzen sekula gaizkiaren kontrako lanean. Gaizkiak erasaten dio, ez du uzten mindu gabe. Baina ez du sekula aitortzen, txarkeriak menperatu duenik. San Paulok, bizitzako sufrimenei aurpegi emateko indar gisa bizi izan zuen berpiztea, eta itxaropenerako bide izan zi-tzaizkion bere sufrimenak⁵⁴.

⁵⁴ Ikus 2 Kor 4-5.

Behin betirako dena, hasi da dagoeneko Jesusekin. Gainerako gauza guztien aurrean sortzen den askatasuna, erroetarainokoa da horrelakoetan. Apostoluek, Berpiztua ikusi eta Haren Espiritua hartu zutenean, beldurrik gabe, ausardiaz eta kementsu jokatu zuten⁵⁵. Bizitzako arriskueta sartu egin ziren. Hemengo ez da behin betirako. Galtzeko arriskua etortzen denean, ez da bidezko edozer gauza egitea.

Barreneko baretasun sakona

55. Jainkoak ere badaki gaitza hor dagoela. Gaizkia, azken batean, ezinean gertatuko da. Jainkoak bere ahal eta bere handia Jesukristo berpiztuz agertu zuen; gai da hilak berriro bizitzara itzultzeko. Hezur iharrak, haragiz estaliko dira. Komeni da hori gogoan edukitzea. Jainkoa pazientziaz jazten bada, eta bere indarra maitasunean azaltzen badu, horrek ez du esan nahi, bere ahalguztidun izatea beste inork kendu dionik.

Egia da, zenbait garaitan gure ahalmenen azken muturreraino iristen gara; baina, egia da, baita ere, txarkeria, zein eta mingarria den, neurrigabeko maitasunaren baretasunak menperatuko duela. Maitasun hori, Jainkoaren bi-ziaren izerdia da, Jesukristogan agertu zaiguna, guk egonarriz hausnar dezagun. Mundu honetako sufrimenarentzat ez da arrotz Jainkoa; hurbil-hurbileko baidik, hobeto menperatzeko.

Kristoren asmoa egiaztatua

56. Gizaki berria zabalik dago harremanetarako. Zabalik Jainkoak agertzen dion maitasunerako, eta senidearekiko harremanetarako. Horrela bizi izan zen Jesus. Eta Aitak Hura hilen artetik berpiztean, arrazoi zuela aitortzen digu, eta egia gertatu dela Berak adierazi zuena: Jainkoaren Seme gizon eгина dela, alegia.

Jesusen jainkotasuna da Berarenganako gure uste onaren oinarria. Berari dagokion historiaren zatiak, bere bideak, bere bizitzeko moduak, lehen, orain eta gero, beti balio du. Jainkoak aska ezinezko loturaz itsatsi du Jesusen izaerarekin.

Jesukristo gure eredia da, baina ez hori bakarrik. Berpizteak gure artera ekarri digu berriro. Ikasleek, eman zizkien ezaugarriei esker, ezagutu ahal izan zuten. Gaur, Jesusen jarraitzaileen elkarte da Haren ezaugarririk garbiena⁵⁶; eta maitasunez elkarturik Eukaristian aurkitzen dute.

Guri dagokigu Jesus gaurko mundura ekartzea. Beraren adiskide izateagatik salbatuak gaudenaren testigantza ematea, alegia, eta Haren ekintza salbatzailearen beharrean daudenei, hitzaren bidez, Jesus haiengana hurbiltzea.

⁵⁵ Ikus Ap Eg 4,13. 31. 33.

⁵⁶ Ikus Jn 13,33-34; 17,21.

III.- ESPIRITUARENGAN BIZITZEA

57. Kristau izatea Espirituarengan bizitzea da. Honek zera esan nahi du: Espirituak Kristorekin loturan jartzen gaituela, Beronen jokabideak gure bizitzan nabarmenduz; Espiritu Santua Elizan agertzen dela era berezian, eta fededuna Elizan egiten dela bereziki gai, Espiritua mundu guztian bere lana egiten ari dela konturatzeko; kristaua, munduaren balioak onartzean eta balio horiek Kristoren jokabideetan txertatzean –Espiritu Santuak gugan fruitu eman erazten dien Kristoren jokabideetan txertatzean– kristaua Espiritu eramaile bihurtzen dela.

A. KRISTORENGAN BIZITZEA ESPIRITUARENGAN BIZITZEA DA

Espirituak eramaten gaitu Jesus aurkitzera

58. Kristau bakoitzak “niretzat, bizitzea Kristo da”⁵⁷ esan badezake, hori, emana izan zaigun Espiritu Santuari esker da. “Ezin dezake inork esan: ‘Jauna da Jesus!’, Espiritu Santuak eraginez izan ezik”⁵⁸.

San Pauloren bizitzan, eta haren bihotz-berritzeaz geroztik, gauza guztiak Jaun berpiztuarengana zuzenduak geratzen dira; Berau, ordea, era misterio-tsuan bat egina agertzen da beretarrekin: “Zuk erasotzen diozun Jesus nauzu Ni”⁵⁹. Apostoluarentzat, “Kristorengan bizitzea” eta “Espirituarengan bizitzea” bi esaldi berdintsu dira⁶⁰.

San Paulok bezala, fededun bakoitzak Espirituaren eraginez bakarrik deitzen dio Kristori “nire Jauna”⁶¹; Espirituari esker konturatzen da, bere bizitza osoa Kristorekin loturan dagoela⁶², eta Berau gizakiaren ondoan dagoela beti gizaldietan zehar⁶³. Horrela, Jesus, ikusi ez dugularik ere, maite dugu; eta oraindik ikusten ez badugu ere, Berarengan sinesten dugu. Beraren adiskide izateak “esan ezin halako poz handiz” alaitzen gaitu⁶⁴.

Espirituarengan bizi izandako Eukaristiak berritu egiten du gugan, Jauna gurekin egotearen poza; betiko bizi bait da, eta egunen batean behin betiko Berarekin elkartuko garen itxaropena sendotzen du gugan. Espiritu Santuak jartzen du gure ezpainenetan, Jesusek oso berea eta guztiz apartekoa zuen deiera: “Abba!”⁶⁵. Jainkoaren barrena ezagutzen duen Espirituak⁶⁶, eraman gaitzake

⁵⁷ Flp 1,21.

⁵⁸ 1 Kor 12,3.

⁵⁹ Ap Eg 9,5.

⁶⁰ Ikus 1 Kor 6,11; Ef 2,21-22; Erm 14,17-18; Ga 5,22.

⁶¹ Ikus Flp 3,8; Erm 10,9; 1 Kor 8,5-6; 2 Kor 4,5.

⁶² Ikus 1 Kor 3,23; 2 Kor 10,7; Ga 2,20; 3,29; 5,24; Flp 1,21.

⁶³ Ikus 1 Ts 3,2. 13; 2 Ts 3,17.

⁶⁴ Ikus 1 Pe 1,8.

⁶⁵ Ikus Erm 8,14-15: “Jaungoikoaren Espirituak darabiltzanak, haietxek dira Jaungoikoaren seme eta alaba. Ez duzue hartu morrontzarako espiritua, berriz ere beldurrean erortzeko; seme-alabatzarako Espiritua hartu duzue, eta Horrek hots egin erazten digu: Abba! Aita!”

⁶⁶ Ikus 1 Kor 2,11.

Aita ezagutzera: guk esan ahal izan dugun guztia gainezkatzen duen sakontasunez Aita ezagutzera, hain zuzen.

Espirituari esker dakigu, Kristoren gurutzea dela Haren garaipena

59. Espiritu Santuari esker, kristauak bere egiten ditu, Kristo Jesusen jokabideak eta asmoak berak ere⁶⁷. Bere pertsonarekin bat egiten ditu; ez dira beragandik kanpora bezala geratzen.

Paraklito edo Laguntzailearen eginkizuna ez zen, Jesusen mezuari albiste berriak gehitzea. Jesusek berak adierazi zigun hori, Laguntzailea agindu ziguenean. Laguntzailearen eginkizuna beste hau zen: Jesusen hitzek oihartzun berri bat izan zezatela gugan, arazo jakin batean argi egiteko edota bizitzari esanahia emateko. Horrela lortzen du Espirituak, fededunarentzat gurutzea hondamenik handiena ez izatea, egiazko garaipena baizik. Gurutzean Kristo ez zen gaitzetsia gertatu; garaile izan zen.

“Mundua garaitzeak” kristauarentzat ez du esan nahi, bizitza honetan guztien begien aurrean arrakasta izatea; ezta zailtasunetatik aske egotea ere. Alderantziz, beste hau esan nahi du: Jesukristok duela arrazoi eta Haren bizimoldea dela egiazkoa. Hori sinestera eramaten gaitu gure bihotzetan bere lana ari duen Espiritu Santuak, nahiz eta guztiz kontrako iritzia izan munduak eta nagusi azaltzen den ingurugiroak.

Askok gure sinesterik maitagarrienak ez dituztela onartzen, eta batzutan barregarri ere erabiltzen dituztela ikusten dugunean, erasoaren tankera hartzen diogu. Orduan ere, geurekin dugu Laguntzailearen eragina. Hitz horrek, hain zuzen, “adore ematen duena” esan nahi du, talde bateko jarraitzaileek apustu edo jokaldi zail batean egiten duten antzera. Horrela, eta ez irtenbide errazak eskura jarritz, bihurtzen da Espiritua kristau elkartearen barruko sendotasun.

Eguneroko bizitza osoa Espirituaren “fruitu” den maitasunez eraldatua

60. Pauloren erakutsiaren gauzarik nabarmenena zera da: kristau bizitza osoa dela Espirituaren eraginpean dagoena, eta ez bizitzako une edo alderdi berezi batzuk; eta Berari esker, bizitza osoak aparteko ontasun maila hartzen duela.

Beti izaten dira pertsonak, Jainkoa aurkitu ahal izateko, Beragandik aparteko ekintzak espero ohi dituztenak. Beste batzuk, azken batean, otoitz aldietara mugatzen dute Jainkoaren ekintza, edota kristau elkarteak bildurik aurkitzen den uneetara.

Baina Espirituaren iharduera ez da une goxoetara bakarrik mugatzen. Basamortuaren lehorrean ere eskaintzen du bere ur bizia; Haren ekintzak bizitza bateratzera jotzen du beti. Paulok sumatzen du, aldaketa zoragarria gertatzen

⁶⁷ Ikus Flp 2,1-5. Jarraian Laguntzailearen eginkizunaren esanahia argitzeko esaten denari buruz, ikus Jn 14,16-17; 14,25-26; 16,12-15; 15,26-27; 16,7-11.

dela, Espirituari “fruitu ematen”⁶⁸ uzten dionarengan. Hain ederra den hitz horrekin, eranskina ez, baizik eta Jaunaren bizi indarrez aurrera doan bizitzaren emaitza adierazi nahi da.

61. Espirituaren eraginez dabilena ez da besteengandik aldentzen. Beronen egintzak baliteke bat etortzea, gehienbat, beste gizakien egintzekin, edukiari dagokionaz. Baina berak tankera berezi batez egiten ditu, humanismo berri eta egiazko baten ezaugarri.

Kristau bakoitzean eta elkarte bakoitzean Espirituak ari duen lanaren fruitu bakar eta erabatekoa maitasuna da: ez inoiz edo behin egintzara eramaten den aitasuna, bizitzako ohizko era bihurtu dena baizik. Maitasunak zirriko guztiak betetzen dituenean, orduan otoitza, elkarrenganako zerbitzua eta mundu honetako bizitza bera ere, maitasun horren adierazpen bihurtzen dira.

Kristau maitasunak⁶⁹ mila eratako samurtasunezko gauza txikietan ematen du bere fruitua: adore hitz bat, bere garaian zorionak ematea, une egokian egindako erregalia. Pertsonengan konfidantza izatera eragiten du, pertsonengan sinesmen izatera, hutsegiteen arrazoiak aintzakotzat hartzera, eta hutsegite horiek barkatzera. Harrokeriak uztera eramaten du, handi uste ez izatera, azken batean bere buruaz ahaztera, besteetaz eta besteen egiazko onaz arduratzeko.

Espirituak, horrela, barneratu egiten du gugan Jesusen “Legea”, araudi gisa har ez dezagun, ñabardura ugariak dituen bizitza bezala baizik.

Alaitasunez eta bihotz handiz bizitzea

62. Alaitasuna eta bihotz handiko izatea Espirituaren bi ezaugarri berezi dira kristau bizitzan⁷⁰.

Indarrez beterik dagoen bizitzak berekin izan ohi du beti alaitasuna. Ez du alaitasun hori bete-betean nabaritzen, kristau bizitza arauak betetze hutsera murrizten duenak; ezta egiten dituen ukamen eta sakrifizioak etengabe ezpaintedan dauzkanak ere, hain “eredugarri” izateko, utzi behar izan dituenak nahigabez gogoratuko balitu bezala.

Zorionez, urrutiratzen ari da gero eta gehiago gure ikuspegitik kristautasun tristea. Baina horren kontrakoa den alaitasunera ez daukagu geure burua “behartzerik”; behartutakoa izango bait litzateke, bere barru sakoneko atseginik eza aitortzera ausartzen ez denaren alaitasuna. Espirituaren emaitza da: gugan iturri bat bait litzan dariola dagoen Espirituaren emaitza, Jesus gure artean egotearen eta Berau bigarrenez etorriko den itxaropenaren emaitza.

Maitasunaren beste ezaugarri bat eramanpena da. Bihotz handiko denak eta bihotz handiz jokatzen duenak bakarrik izan dezake eramanen; eta ez une nagusietan bakarrik, baita eguneroko bizikidetzan ere.

⁶⁸ Ikus Ga 5,22-24.

⁶⁹ Ikus 1 Kor 13,13.

⁷⁰ Ikus berriro ere Ga 5,22-23.

Inoiz itxuragabe erasoak izan ohi gara. Une horretan ulertzen badugu, guri erasotzen diguna bera, agian, gogorkeriaz erabilia izan izango dela, beharbada txiki-txikitandik gainera, orduan ez diogu ordain berdina emango. Belaki bihurtuko gara; burdin ziriak bere zorroztasuna galduko du, gure jokabidearen ondorioz oraindik gehiago gogortu eta zorrozteko orde.

Espirituak, orduan, etsaiari berari barkatzera eragiten digu; gaitz egin digunari, beharbada kalte handia egin digunari, barkatzera. Hau izan daiteke, agian, Jesusen egiazko jarraitzailearen ezaugarrikerria. Justiziara jotzea ezinbesteko ikusten denean ere, maitasunak kendu egiten du gorrotoa bihotzetik.

B. ESPIRITUAREN BIDERA MUNDUAN ETA ELIZAN

Espiritua nonahi bere lanean ari den mundura itzulirik

63. Kristaia, bizi beharra egokitu zaion mundura bihurtzen da, gogo onez bihurtu ere. Badaki, mundu honetan badirela egiazko balioak, eta diren gauza guztiek zerikusia dutela Espirituaren sorkuntza lanarekin. Munduaren hasieraz geroztik, hegan dabil Espiritua haren gainean. Aitak bere Semearen bidez egiten ditu bere asmo guztiak eta, Espirituaren maitasunez, maite ditu gauza guztiak. Espirituarengan hezur-mamitzen ditu gauza guztiak eta, horregatik, “onak” gertatzen dira; gai dira Aitak atsegin izan dezan beroengan.

Egia da, gizakiaren bekatuak uztarpean jartzen dituela sorkari guztiak eta nahasmen osoa dirudien zerbaitetan bihurtzen duela historia. Giza balioak bihurtuak azaltzen dira askotan. Ez, ordea, deseginak. Mundua intzirik dago askatasuna iritsi nahian. Beraz, ahaleginak egin behar ditu, norberatasuna iristea galarazten dioten gauza guztiak desegiten, Jaungoikoaren seme-alaben aintzazko askatasunean parte izan dezan⁷¹.

64. Jaungoikoaren seme eta alaba izate hori Espirituari esker lortzen da; izan ere, Espirituak –etengabeko bere egintzaz– Jaun berpiztuarenganako bidean jartzen ditu munduak dituen alderdi on guztiak, Berau bait da “gizadiaren erdigunea, giza bihotzaren poza eta beronen amets guztien betearen betea”⁷².

Ikuspegi honek aldaketa sakona egin arazi dio Elizari bere jarreran, batez ere Kontzilioaz geroztik. Katolikoak gehiago konturatzen dira orain, Kristoren Espiritua bizi arnasa ematen ari zaiela oraintxedanik gizakien amets eta balio onei.

Garbiago ikusten da orain, fededunok elkarturik lan egin behar dugula gizaki guztiekin ekintza onetan. Misio lana ez da goitik behera datorrena soil-soilik, egia Elizagandik bakarrik baletor bezala. Elizarengana ere etortzen da.

⁷¹ Ikus Erm 8,20-24.

⁷² *Gaudium et spes*, 45. z.

Espirituaren egoitza berezi-berezia den Elizak sortuak

65. Elizak ez du, beraz, Espiritua bere esku bakar-bakarrik daukan uste haizerik: “Zalantzarik gabe, Espiritu Santua bere lanean ari zen munduan, Kristo goratua izan aurretik ere”⁷³. Baina, bestalde, badaki, Jaun berpiztuak ordurarte ezbezalako ugaritasunez eman zuela Espiritua. Joanen ebanjelioak zera adierazten du: “Espiritua ez zen oraindik emana izan, Jesus ez bait zen oraindik gortsia izan”⁷⁴.

Mundu honetako bere bizitzan zehar, Jesusek gutxitan hitz egin zuen Espirituari buruz; baina kristau elkarteek –Espiritua hartu ondoren– Jaunaren gainera etortzen zela eta Berak eragiten ziola konturatzen dira. Eta Pentekostes egunaz geroztik, Elizak, bera Espiritu Santuaz beterik dagoela sumatzen du, Elizaren beraren Ama eta irudi den Andre Mariarekin batera bildurik dauden apostoluen gainera jaitsi ondoren.

Espiritu Santuaren egoitza izanik, Elizak fededunei ematen die. Bataioan Jainkoaren seme eta alaba sortu zituenean emandako Espiritu beraz indartzen ditu Sendotzan. Izadi osoaren eta historiaren askapenari ekingo diote, Espirituaz indartuak izan diren horiek. Eta horrela jarraipena emango diote, Jesusek, Espiritua bete-betean Berekin zuen Yahveren Zerbitzariak, mundu guztia Espiritu berorrekin biziberritzen izan zuen eginkizunari⁷⁵.

Elizaren begibistako alderdien bitartekotza onartuz

66. Espirituaren ekintzak Kristorekin adiskidetasun mina izatera eramaten gaitu, geure barnean biltzera eta maitasuna era jakin batean ulertzera. Baina horrek ez du esan nahi, eliz arauak eta beharrezkoak diren erakundeak aintzartat hartzen ez dituen espiritu bideetan erortzea.

Askorengan nabaritzen da gaur egun, Elizaren begibistako alderdiak gutxi-esteko joera, alderdi horiek eragozpen balira bezala Jaunarekin adiskidetasun estua izateko. Baina, ez dago Jesusen borondatea erakusten duten alderdiak bazterrera uzterik, Espiritu Santuak Kristoren Gorputzarekin bat egiten bait ditu, eta salbamengintzaren ageriko sakramentu bihurtzen⁷⁶.

Elizaren erakunde alderdiak onartzen dituenak bakarrik bizi du Eliza “Kristoren agerpen” gisa, eta bat egiten du Jaunarekin Beronek aukeratu zuen bidea erabiliz: bere bitartekotzak onartuz, alegia, guk geure nahikerien arabera sortuko genituzkeen beste bitartekotza batzuez aldatzeko orde.

⁷³ *Apostolicam actuositatem*, 4. z.

⁷⁴ Jn 7,39.

⁷⁵ Ikus Is 11,2; 42,1; Jn 1,33; 3,34; 7,37-39.

⁷⁶ Ikus *Lumen gentium*, 8. z.: “Elizaren sozial batasuna Espirituaren zerbitzura dago; bizitasuna ematen bait dio, gorputza hazi dadin”; eta *Lumen gentium*, 48. z.: “Kristok bere Espiritu biziemailea bidali zuen bere ikasleen gainera; Espiritu horren bidez eraiki zuen bere Gorputza den Eliza, salbamen sakramentu izan dadin guztientzat”.

67. Pentsa dezagun zehazki: gure amek erakutsi zizkiguten otoitzen beharra izan dugu, gu hezi gintuztenen kristau testigantzen eta Jaunaren ministrarien hitzaren beharra... Guzti hori posible izan bada, Elizari esker izan da; beronek, Jesusek haren ardurapean jarri zuen oinordekotzarekin leial izanez, pertsona horiek hezi zituelako; gu, berriz, hauek hezi gintuzten⁷⁷.

Gure izaerak berak, gorputz eta espiritu izanik, beharrezko egiten du, ikus ez daitekeena ikus eta uki daitekeenaren bidez bilatzea. Elizan aurkitzen ditugu, Jesusek berak guretzat lagungarri egokiak direla uste izan dituen hainbat gauza: Haren hitza, sakramentuak, Haren izenean diharduten ministrarien ekintza.

Jesukristogan jarri dugun uste onak bitartekotza hauek sinesmenez onartzeraz eramaten gaitu, berauek, Espiritu Santuaren egintzari esker, Jainko gure Aitarekin elkartzera eramaten gaituztelako. Inoiz elkartze hori hurbil-hurbileko gauza bezala sumatzen dugu, eta egiazko esperientzia bezala.

Espirituarekin batera, elkarte konkretuen egile

68. Eliza elkarte konkretuetan bizi da, eta beroiek oinarri dituela doa hazten: kristau familia, parrokia eta beronen barruan egon ohi diren era askotako taldeak... Elkarte horiek eraikitzeari ekiteak zera esan nahi du, aldi berean: beroiei bizi arnasa ematen dien Espirituaren mende jartzea.

Elkartean bizitzea oinarritzko beharkizun bat da, nahiz eta gaurko gizarteak horretan arreta gutxi jarri. Behin eta berriz errepikatutako gauza bada ere, gizarte honetan gizakia bakardadean aurkitzen da askotan, babesik gabe, nahiz eta jendetza handi baten erdian egon.

Kristau elkarteak era askotako pertsonen ekintza bateratuari esker eraikitzen da: elkar errespetatuz, onartuz eta barkatuz. Bakoitzak duen onena ekartzen du elkartera. Horrelako elkarteak ostatu eskaintzen dio gaurko gizakiari. San Paulok esaten digunez, elkarteko bizitzaren egile nagusi den Espiritu Santuaren ekintzaren fruitu da hori⁷⁸.

69. Espirituak ematen dio bakoitzari bere dohaina, bere karisma, zerbitzu egiteko bere era. Horrela, Eliza, bere barruan ministeritzak dituen elkarte bezala azaltzen da, elkarri zerbitzuak egiten dizkietela, fedean eta kristau maitasunean hazten joateko. Bakoitzak bere dohain berezia dauka, eta ezagutu egin behar du dohain hori, ahalik eta zerbitzurik onena egiteko besteei familian, parrokiari, lanean edota beste edozein egoeratan.

Horrela sortu dira gaurko Elizan, hainbat zerbitzutan erantzukizuna duten laikoak: liturgian, katekesian, gazteei nahiz ezkontzarako prestatzen ari diren bikoteei harrera ona egiteko, parrokiako ekonomi administraritzan, zuzentasuna eta bakea indartze lanetan, behartsuen laguntza taldeetan...

⁷⁷ Ikus IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Jesukristori Eliza honetan jarraitzea*, Pastoral Idazkia, 1989, Garizuma-Pazko Piztuera, VI, 2. 2. b).

⁷⁸ Ikus, batez ere, 1 Kor 12-14 eta, bereziki, karismen zerrenda: 1 Kor 12,8-10. 28-30; Erm 12,6-8.

Eliz elkarteari zerbitzu alai egitea kristau bizitzaren ezaugarri bat da. Gehiago oraindik, bakoitzak konturatu behar du, norbera dela, Espiritua berekin duelako eta Haren graziaz, Jainkoak berari egiten dion erregaliarik bikainena eta berak besteri egin dakiokena.

Geuregan dugun guztia: geure izaera bera, zorrotza nahiz irribarretsua izan, geure dohainak, ahalmenak, esperientzia edota sufritzen jakitea..., guzti hori besteentzat den dohaina dela. Baita besteak ere, niretzat erregali dira, beroriei bihotz eraldatu batez begiratzen ikasten badut.

Batasuna eraikitzea ezberdintasunean

70. Espirituaren dohainek ezin gaitzake zatiketara eraman. San Paulok⁷⁹ bere pastoral ahalbide guztiak erabili zituen, sakonki erabili ere, hori erakusteko; izan ere, baziren beren zerbitzuan neurritz kanpo aritzen zirenak, besteen dohain guztiak ilunduta uzteraino.

Oinarri-oinarrizko esperientziak erakusten digu, zenbaterainoko zailtasunak dituen berekin gizakiok elkarrekin bizi beharrak. Aitaren eta Semearen arteko maitasuna den Espiritu Santua lanean ari da etengabe, ezberdintasunen ugaritasuna eragozpen izan ez dadin, aberastasun baizik, kristau elkartearen batasunerako.

Poz ematen du ikusteak, beste norbaiten dohainak, oso ezberdina izanik ere, osotu eta garbitu egiten duela nirea. Kultura desberdineko beste nazio batera joan eta hango fededunak nire kristau esperientzia sakonenarekin bat datozela ikusteak arnasberritu egiten du itxaropena.

Elizaren bizitza lotura estuan aurkitzen da, maitasunaren Espiritua bere barruan egotearekin; Beronek sortzen eta zuzentzen bait ditu fededun guztien ekintzak, denen onerako izan daitezen.

71. Horregatik, guztion eginkizuna da, Elizan denen parte hartzea eta elkarrizketa indartzea; baita egiazko iritzi publikoa eratu eta adierazteko egokiera emango duten bideak bilatzea ere.

Guztien heldutasunak, baita beheko mailan lanean ari direnen heldutasunak ere, helburu horretara zuzendua egon behar du; hori ez da artzainei eta beste buruzagiei bakarrei dagokien erantzukizuna. Eginkizun honek, geure eskurago dauzkagun mailetan hasi behar du: parrokia, ikastetxe, beste erakunde katoliko, apostolutzako mugimendu, etab. Alde batera utzi behar da beti errebendikazio espiritua eta agintaritzarenganako kritika mingotsa.

Ezberdintasuna batasunaren barruan taxutzerakoan ere Espirituaren eragina sumatzen dugu; Berak eragiten digu lan horretara.

⁷⁹ Ikus berriro ere 1 Kor 12-14.

C. ESPIRITUAREN ERAMAILE MUNDURA

Elizarekin, misio lanean

72. Pentekostes egunean Eliza jendaurrera azaltzen da, misio lanera bidalia izan den uste osoan. “Enparantza erdian zutik” jarririk, Espirituaren indar zabaltzaileak Jesukristoren salbamena gizaki guztiei eramatera gidatzen du Eliza.

Hori ikusten dugu batez ere Apostoluen Eginetan. Liburu honetan apostoluak “Espiritu Santuak beterik”⁸⁰ azaltzen dira, eta lehen ez zeukaten adore handi batez horniturik, misio lanak berekin dituen arriskuei aurpegi emateko. Esteban diakonoari jakinduria eta grazia nabari zaizkio bere hitzetan; Ebanjelioaren etsaiek menperatu ezin zuten indarra⁸¹.

Prediku lanean bidelagun dute Espiritua. Berak laguntzen die apostoluei. Batasunean biltzen ditu, jatorri desberdinetako pertsonak. Laguntza ematen die, berri ona zein leku eta egokieratan zabaldu behar duten jakiteko.

Gaur egun ere indar da Espiritua Hitzaren mezularientzat: ezin konta ahala ibilalditan nekaezina den Aita Santuarentzat; gotzain eta apaizentzat beren pastoralgintzan; ia biztanlerik gabeko lurralde sakonean, Jesusen berri ona entzuteko egokiera oso gutxi daukatenen bila, bakarka sartzten den misiolariarentzat; erlijioso eta erlijiosoentzat, Jesukristori zain-zainetik jarraitzeko; egu-nero, munduan eta lanean, Jesukristoren testigu egiten den laikoarentzat.

Espirituaren zerbitzura, mundua Jainkoaren Erreinu bihurtzeko

73. Beraz, fededuna Espirituaren zerbitzura jartzen da, mundu osoa Jainkoaren eraginera zabalik egonez, eraldatu eta Haren Erreinu gerta dadin. Horretarako bere lana egiten du elkarren arteko bizitzako sail handi guztietan.

Lan hori egitean ez du ahazten, Espiritua han dagoela jadanik munduan, eta fededunaren aurretik doala bere ekintzan. Ikasi egiten du, beraz, Elizarekin batera garaien zantzuak arakatzen, beroietan aurki daitezkeen bizi seinale guztiei arnasa emateko.

Fededunak aintzakotzat hartzen ditu balio handiak: egia, askatasuna, zuzentasuna, maitasuna, bakea... Joan XXIII.ak *Pacem in terris* entziklikan erabakiorki azpimarratu zuen bezala, gizaki guztiena den izaeran aurkitzen bait dira, Jainkoak jarri zituelako. Aitortzen du, bestalde, balio horiek, beren zainak gizadiaren bihotzean botata eduki arren, askotan ilundu, nahastu eta okertuak⁸² geratzen direla; eta, nolana ere, Kristorik gabe ezin iritsi direla behin ere beren osotasunera.

⁸⁰ Ikus Ap Eg 4,8.

⁸¹ Ikus Ap Eg 6,8. 10. 15. 55-56.

⁸² Ikus Paulo VI.a, *Ecclesiam suam*, 89 z.; ESPAINIAKO GOTZAINEN BATZARRA, *Los católicos en la vida pública*, BO CEE, 10 z. (1986), 48 or.

74. Fededunak, Elizatik eta Espiritu Santuaren ekintzari esker, laguntza handia eman dezake, balio guzti horiek asmo eder hutsean gera ez daitezten. Argitasun eman dezake, balio horietaz hobeto jabetzeko, eta indar eraberritua, beroien alde lan egiteko.

Bestalde, zoriontasunen bidea eskaintzen du, fededuna bera ere bide horretatik sartuz, bokazio eta egoera bakoitzari dagokion eran, eta Espirituaren eraginari erantzunez. Hauek dira, lehenago aitatu ditugun ebanjeliozko jokabide handiak, Jesukristoren moralala esan dezaiokeguna. Jokabide horiekin, fededuna legami bihurtzen da gizadiaren jakinduria etikoarentzat; onartu eta garbitu egiten du jakinduria hori, eta egintzara eramateko erantzukizuna hartzen du.

Ondorengo ataletan, langintza honen alderdi garrantzitsuen batzuk bakarrik aztertuko ditugu.

Materia, Jainkoaren salbamen asmo barruan sartzea

75. Gure mundu honetan, bada oraindik gorputza eta materia gaitzesteko joera zaharra. Lehenago aitatu dugun ekologiari buruzko krisia bereziki kezkarria bihurtu da. Izadiarenganako errespeturik ezaren ondorio da eta, Joan Paulo II.ak oraintsu gogorarazi digunez⁸³, egiazko arazo moralala gertatzen da.

Kristaua ez da salbatzen materiagandik, materiarekin baizik. Espiritu Santuak ez du materia desegiten. Hura gauza guztien barruan sartzen da: mugarik gabeko Jainko ikusezinagandik hasi⁸⁴ –Hirutasun Guztiz Santuko hirugarren pertsona izanik bat egina bait dago Jainkoarekin–, eta gure materiaren begibistako apaltasuneraino. Era honetan, Jainkoaren salbamen asmo barruan sartzen du materia bera ere.

Aitak Espirituaren indarrez berpizten du Jesus eta “espirituzko gorputza”⁸⁵ ematen dio. San Pauloren esaldi hau nahasgarria gerta daiteke. Baina, esaldi horrekin, judutar pentsaeraren errealismoarekiko oso leiala zen apostoluak ez zuen materiarik gabeko gorputza adierazi nahi, baizik eta gizakiaren materia bera Espirituaz asebeta.

Espirituaz asebetetzeak zera esan nahi du: izadi guztia, gizakiaren bidez, harremanetan jartzea Jainkoarekin eta beste gizakiekin.

76. Gizaki “espirituala” ez da uzkurtua dena, bere maitasuna adierazten dakiena baizik; gorputz keinu egokiaz ere adierazten dakiena. Gudan bizi den Espirituari gu gida gaitzan uzten badiogu, Hark berak gure barnean ematen digun bi-ziari dagozkion kanpoko jokabideak hartzen joango gara.

⁸³ Ikus Joan Paulo II.a, *Paz con Dios Creador, paz con toda la creación*. Bakearen mundu guztiko Jardunaldiaren ospakizunerako Idazkia, 1990, I, 1: (*Ecclesia*, 2.456 z. [1989, abenduak 301, 6-7. z., 1.930-1.931 or.).

⁸⁴ Ikus 1 Kor 2,11.

⁸⁵ Ikus 1 Kor 15,44.

Baina ez gure gorputzak bakarrik. Mundu osoak bihurtu behar du gizakien arteko elkartasun bide. Mundu osoak: ondasun material, argi indar, meatze eta petrolio putzuetako aberastasun, janari, urtegi eta baso, ekonomi eta finantza mundu...

Horiek erabili eta eraldatzen dituztenak nekazariak dira, edota langile, injineru, zientzilari, ekonomilari, mediku, legegile, gobernari... Edonor, benetan Jainkoaren seme edota alaba gisa jarduten badu⁸⁶.

Materia askatu eta zuzentasunaren eta beren senideen zorionaren zerbitzura jartzen dutenean egiten dute eraldaketa hori. Pentsa dezagun, esate baterako, zer-nolako aldea dagoen, hirietako auzoalde herrikoiak ongi eratuak eta zerbitzuz hornituak egon ala ez egon.

Espirituak elkartasun eta maitasunera eramaten gaitu beti. Eta Espiritu horren eraginera eta esanera dabilen fededunak gauza guztiak eraldatu egiten ditu, baita materia bera ere, eta sorkuntza berri egiten.

Espirituaren kutsua ematea maitasunaren eta bizitzaren etikari

77. Gizonaren eta emakumearen arteko harremanak ulertzeko era asko aldatu da gure artean; eta berdin bizia eskualdatu eta besteri emateari dagokion guztia ere.

Alderdi hauei buruzko Elizaren morala atzerakoia jotzen da askotan, gehiagoko zehaztasunik gabe. Belaunaldi berrien heziera utzikeriazko giroan eta amore emanez ari da egiten. Sexua entretenigarri huts gertatzen ari da, edo atsegin iturri soil.

Pentsaera honek, askotan, etsipenera eramaten du bizitzaren aurrean, eta garaia baino lehenago gainera. Nolanahi ere, eragozpen gertatzen da, bestelako interesik gabeko maitasun garbira zabaldu ahal izateko.

Elizak ezkonduen maitasun bidetzat hartzen ditu sexuen arteko harremanak, eta maila horretan egiten den pertsona arteko komunikaziorako bide. Elkartasun hori jaiotzara eta seme-alaben hezierara zuzentzeak emankor egiten ditu harreman horiek, berekoikeriatik garbitzen eta bikainago egiten. Ez dago alor honetan garbiak izaterik, bizitzari buruz pentsaera altruista izan ezik, besteengana zabalik egonez, alegia, eta ez neurekoikeriaz neure buruari bakarrik begiratuz.

78. Giza izaeraren oraingo egoera kontutan izanik, egiazko maitasuna lortzeko beharrezkoak dira, neurri batean, diziplina, atseginkeriak uztea eta, nolabait esateko, sufrimena. Senar-emazteen arteko maitasuna ez daiteke salbuespen izan. Hala ere, sexu eta ezkontzari buruzko Elizaren irakaspenak esaten du, giza bizitzako alderdi sakon hauek giza osotasun eta zorientasunerako bide izan behar dutela.

⁸⁶ Ikus Erm 8,21.

Gai honi buruz, egoera konkretuak argitzeko, Elizak emanak dituen moral argibideak ez dira nolana ulertzekoak; ez dago ontzat ematerik, egoera horietaz kontzientzi heziera zuzeneko pertsonak izan dezakeen ulerpenetik kanpo, bakoitzak bere iritzi berezia erabiltzea. Kasu konkretu bakoitzaren balioztapen egokia egiterakoan beharrezkoa da gutxieneko moral ikuspegia gainditzea; kezka bakarra ez daiteke izan “noraino joan gaitzkeen”; alderantziz, moralak ikuspegi osoaren zerbitzura egon behar du, bere-berea bait du hori ezkonduen maitasun eskaintzak.

79. Garbitasuna bake sakonera daraman bidea dela konturatzea lan luzea da. Haurtzarotik hasitako heziera eskatzen du. Norberaren mugapenen esperientzia bera Aita onarenganako konfidantza apalaren iturri izan daiteke, eta eskuzabal-tasunerako egokiera.

Bihotz garbitasunak eskatzen duen menekotasuna⁸⁷ gizakiaren borondate askearen ondorio da eta, aldi berean, Espiritu Santuaren ekintzaren fruitu.

Espiritua, bere ekintza leun eta indartsuaz, gai da giza gorputz osoaren gain eragina izateko. Horrela, Espirituak, kristauen ezkontza eta horretara daraman bidea, fededunek munduari eskaintzen dioten bizitza eraren adierazpen berri bihurtzen ditu: pozez eta itxaropenez betetako bizitza eraren adierazpen.

Espirituaren eraginez, zuzentasun eta bakearen alde lan egitea

80. Aspergabe zuzentasunaren alde lanean ari den kristauak ez du bere esku-bideen errebindikazio hutsean jartzen bere azken jomuga; ezta arau zuzenak aldarrikatze soilean ere.

Kristauak lortu nahi duen zuzentasuna maitasunaren eta Espiritu Santuaren aspergabeko ekintzaren fruitu da; eta nekepean eta bazterturik dagoenaren ona eta askatasuna bilatzen ditu.

Kristauak egiazko Jaun bakarra gurtzen du, eta erabakiorki arbuiatzen ditu lur honetako diktadura guztiak eta erregimen politikoen zapalketa alderdi guztiak. Lurreko txiki eta behartsuei lotua sumatzen du bere burua; lotsagarria gertatzen zaio, biluzik dauden hauen aurrean ezikusia egitea.

Badaki, Espirituak Jesus behartsuei berri ona ematera⁸⁸ bidali zuela; eta arrazoi berarengatik, bera ere beroiengana hurbiltzen da. Ondasunen, dohainen eta giza balioen nahiz balio etikoen eskasiak ez du gutxitzen, pertsonaren misterioaren balio sakratua.

81. Jaioberria den haurrarenganako gurasoek duten utziezinezko erantzukizuna are handiagoa da, hain zuzen, haur hori argala delako. Pertsonak, bere barruan gizatasun apur bat gordetzen badu, erantzukizun hori bera sumatzen du beregan; eta gogo txarretik bakarrik onartzen du, zapalduari bere behar gorrian

⁸⁷ *Enkrateia* edo norberaren menekotasuna ere Espiritu Santuaren fruitu da: Ga 5,23.

⁸⁸ Ikus Lk 4,18-21.

lagundu ezina. Elizak erabaki osoz gaitzesten badu abortua, jokabide honetan aurkitzen du balio handiko arrazoia.

Zuzentasunaren aldeko lanak ez du eskatzen, nork bere ondasunetatik zati bat emate hutsa; bere ekintza eta pertsona bera ere giza beharraren zerbitzura jartzea eskatzen du.

Zuzentasuna ez da besteei eskatze hutsarekin ezartzen. Lanbidea aukeratu eta hartan jardutekoan erabilitako irizpideen bidez lortzen da; eta geure esku dauzkagun ondasunen erabileraz. Zuzentasunaren alde egiten dugu, soldata gehiago izateari uko egiteko gai garenean, solidaritza garbiago erakusten duen beste ogibide batean aritzeko.

Guzti honetan mugapen sakonak nabari ditugu. Espirituaren ekintzak ez digu, gauza garen baino gehiago egiterik eskatzen. Baina lagundu egingo digu, Jainkoaren Seme gizon eginak edozein eratako beharraren uztarpean daudenentzat dituen errai errukitsuak gero eta garbiago ezagutzen.

Horrela, kristaua bakegile bihurtzen da, bakea ez bait da inoiz indarkeriaren ondorio. Baina bakea ez da, zerbait izanik ere, armak isiltze hutsera mugatzen. Eraldatu egiten du sakon-sakonean gizakien espiritua.

Kulturak ebanjelizatzea

82. Gutako bakoitzaren bizitza bereziezina da, gu txertatuta gauden kultur inguruagandik. Kultura nor bakoitzaren barruan sartua dagoen zerbait da; pertsona bezala duen izaerari nolabait bere itxura ematen dion zerbait. Kultura, azken batean, pertsona aske eta arduratsuen ekintzaren ondorio da. Baina egia da baita ere, eta ez gutxiago, pertsona horiek herri baten kulturaren edota kulturaren arnasa daramatela beren barruan eta hori dutela espirituzko janari.

Kultura, hezkuntza eta ikerketaren maila ezberdinetan egiten da eta eskualdatzen edo besteri ematen; komunikabideak ere kultur hedatzaile apartekoak dira; arte eta folklore alorreko ekintza ezberdin eta era askotakoak, herrien norberatasunarekin lotura estuan dauden kultur adierazpenak dira, hizkuntza den bezalaxe. Kultura, bestalde, hor azaltzen da eta bere eragina izaten du, gizarte bizitza eratzen duten eta gutxi-asko erakundetuak dauden harremanen sare aberatsean ere. Kultura da, azkenik, giza bizitzaren ulerkera ere; baita ulerkera honetatik sortzen diren balio eta kontrabalioen multzoa, eta gizarte mailan onartutako jokabide arauak ere.

Horregatik, arrazoizkoa da geure buruari galdera egitea, gaurko kulturak, osagai ezberdin eta inoiz elkarren kontrakoez eratua dagoen kultura honek, nolako giza eredia sortzen duen. Ugaritzen ari ote da, nortzuk diren dakiten pertsonen kopurua, beren bizitzak zer-nolako esanahia duen eta zer-nolako balioak landu behar dituzten dakitenena? Benetan pertsona aske eta arduratsuak izateko, aski ote da gizartean indarrean dauden pentsaera, sentiera eta jokaerak inolako axolarik gabe onartzea?

83. Kristauek, beren gain ezinbestean sumatuko duten kultur eraginaren aurrean, fedeak kritika jarreraren hazia berekin duela aurkitu behar dute. Gehiago oraindik, kultura beharturik eta ezinbestean ezartzerik ez dagoenez gero, pertsonen uste sendoak eta jokabideak mugatzeko, kristauek galdera egin behar diete beren buruei, kulturgintzaren eginkizun kolektiboaren aurrean beren gain geratzen diren erantzukizunei buruz.

“Ebanjelioaren eta kulturaren arteko etena da, zalantzarik gabe, gure garaiko zoritxarra, lehengo aldietan izan den bezala. Horregatik, ahalegin guztiak egin behar dira, kultura, edo hobeto esanda, kulturak eskuzabalez ebanjelizatzen; biziberrituak izan behar bait dute, berri onaren igurtziaz”⁸⁹.

Horrek, bizitzaren kristau ikuspegia eskaintzea esan nahi du; beste hiritarren maila berean eskaini ere, aparteko legerik gabe, baina beldurrik gabe; sendo sinesturik, Jesusen mezuak baduela indar giza bizitza duintasunez jazteko eta betetasun handiagora eramateko. Eta guzti hori, guk bizi dugun histori une honen kultur harremanetan benetan adierazgarriak izango diren ahalbideak erabiliz.

84. Gainera gure artean kultur ugaritasuna dago; eta horrek arazo bereziak planteatzen ditu: kristau bizitzak ezikusia ezin egin diezaiekeen arazoak. Begien bistan ikusten da hori gizarte bizitzako adierazpen askotan; eta beti errazak gertatzen ez diren bizikidetza erak sortzen ditu, inoiz tirabirak eta istiluak berekin dituela, eta behar bezala konpontzen ez direla. Hizkuntza da, kultur ezberdintasuna adierazten duen osagairik garrantzitsuenetakoa, bakarra ez bada.

Joan-etorri handiko gauza da, kultur baketze bidean ezarian-ezarian aurrera egitea, kultur baketze horrek zainak bota ditzan orokorki gizarte bizitzan. Horrek, ordea, bere kulturari buruz pertsona bakoitzak dituen eskubideak aitortzea eskatuko du. Ziurtatu egin behar da, bestalde, egintzara eramanak izango direla, kultur norberatasuna aitortzeari buruz bidezkoak diren eskakizunak. Horretan zerikusia handia du, lurraldeko erakundeak behar bezala egokitzeak, batez ere hezkuntzarekin zerikusia dutenak.

Munduaren barrutik aritzea, bakarka nahiz elkarturik

85. Katolikoak, munduaren barrutik legami gisa arituz, saiatzen dira helburu horiek lortzen. Horietako askok, beren ogibideko alorrean lanean ari direla egiten dute hori, kristau bezala azaltzen ez diren pertsonekin, edota soil-soilik sekularrak diren erakundeen alorrean.

Beste batzuk elkartu eta kristau eitea duten erakundeak sortzen dituzte, gizarte bizitzako zenbait alorretan. Edota garbi-garbi konfesionalak diren erakundetan sartu eta lan egiten dute, esate baterako, ikastetxe katolikotan⁹⁰.

⁸⁹ Paulo VI.a, *Evangeliū nuntiandi*, 20. z.

⁹⁰ Ikus *Gaudium et spes*, 75-76. z.; ESPAINIAKO GOTZAINEN BATZARRA, *Los católicos en la vida pública*, BO CEE, 10. z. (1986), 39-63. or.

Gauzak orokorki harturik eta kasu bakoitzean egin beharko diren analisisien eragozpenik gabe, esan beharra dago, erakunde hauek, gure artean, gauza gutxi direla, kristau elkartegandik uxadon daitekeen bizitzasunerako. Horiek ugari-tzea guztien ona sendotzeko laguntza izango litzateke; beharrezkoak bait ditu erdi mailako erakundeak, gizarteko sarea indartzeko. Erakunde hauek sendotu egiten dute gizabanakoen garrantzia Estatuaren aurrean, eta eragin berria ematen diote denen lanari, guztien ona lortzeko.

Solidaritzako askatasun egile eta Jainko biziaren testigu

86. Badira batzuk dikotomia edo bikoiztasuna sortu nahi luketenak, bitartekotzan ari direnen kristauen eta presentzian edo bertan sartuta ari direnen artean; baina hori ez da egokia. Kristok eta Espirituak benetan liluraturik daukaten fededunak testigantza ematen du, bai munduari buruz bizi duen erantzukizun sakonarena, bai bere seme-alaba bihurtu duen Jainko Aitarena.

Gizakiak gaur lortu nahi dituen eta erabat behin ere lortzen ez dituen balioetako bi, askatasuna eta solidaritza dira. Kristauak badaki, bere fedea sendotu egiten dituela balio hauek; konturatzen da, Jesukristoren Espirituak indartu egiten duela bera bere barrutik. Kristauak gai izan behar du, interes berekoien eraginez bakarrik mugitzeko joera duen askatasuna solidaritzaren olioaz leuntzeko; eta legearen aginduz bakarrik ezarria izan den itxura hutsezko solidaritza, askatasunarenganako errespetuaren gantzuduraz leuntzeko.

Horrela egitean, fededunak Jainko biziaren testigu eta lekuko ere badira. Bat etortzen badira beren fedea eta jokabideak, zabaldu egiten dute beren bizikideen ikuspegia, Jainkoak Bera maite duten guztientzat prestatua daukan etorkizunera⁹¹.

⁹¹ Ikus 1 Kor 2,9.

IV.- GIZAKIA HIRUTASUNEAN

87. Kristau salbamena Jainkoaren bizia bera da gugan. Oraintxedanik badugu erantzuna, egunen batean oso-osea izango den erantzuna, gizonak lur honetako bizitzaren mugak gainditzeko duen gogoarentzat; baita beste gogo sakonago batentzat ere: gizakiak bere barruan behin ere aurkitzen ez duen betetasunaren itsaso zabala den Mugagabearekin behin betiko bat egiteko duen gogoarentzat.

“Kristauak gauza bat bakarrik aldarrikatzen du, egiaren argitasun distiratsuz aldarrikatu ere...: betetasun oso-osea dena Berbera, ulergaitza eta izenik gabea, mugagabea eta esan ezina, kreaturaren barneko bikaintasun bihurtu dela eta inolako murrizkeriarik gabe, baldin eta kreaturak berak hori onartu nahi badu” (K. Rahner).

Hirutasun Guztiz Santua deitzen diogun Jainko hau Biziaren ibaia bezala da; bere ur garbiaren emari guztia bere Semearengan isurtzen du, bien arteko maitasun pertsonalaren fruitua, Espiritu Santua izan dadin. Jainko Semearen Gizakundeak erakusten digu, Jainkoaren bizia gugan isurtzean gure nortasuna ez dela urpean galtzen, ez desegiten. Alderantziz, goratua geratzen da, bere osotasunaren bidean.

Maitasuna Jainkoarengan eta gizakien artean

88. Jainkoaren bizitzan txertatuak geratzen gara Berari esker: Berbera giza-kiari ematen zaiolako. Horregatik, gure maitasuna Jainkoarenaren antzekoa izan daiteke eta Haren maitasuna adierazi: “Izan zaitezte Jaungoikoaren antzekoak, Haren seme-alaba zaretenez gero, eta zabilzate maitasunean, Kristok ere maite izan bait zintuzten, eta bere burua guretzat eman zuen eskaingai eta Jaungoikoarentzako opari usaintsu bezala”⁹².

Kristau bizitzaren bilduma maitasuna da. Ez da etika jokaerara mugatzen. Guztien gaintik, maitasunari bere barru sakonenetik bizitasuna eta janari ematen dizkion izerdia da.

Izerdi hori Jainkoaren bizia da gugan: “Jaunak ‘guztiak bat izan daitezela, Gu bat garen bezala’ (Jn 17,21-22) Aitari eskatzen dionean, giza arrazoiarentzat uste ezbezalakoak diren muga berri zabalagoak jartzen ditu: nolabait antzeko egiten ditu, jainkozko hiru pertsonen arteko batasuna eta Jainkoaren seme-alaben batasuna egian eta maitasunean”⁹³.

Gizadiak, batez ere gizakien elkarren arteko menpetasuna gehitzen ari denean askatasunean, beren arteko harreman zuzenak, bihozkorak eta senide artekoak izatea amesten du. Bakoitzak besteengandik haien on guztia hartu nahiko luke, eta berak daukanaren onena eman; horrela elkar trukatzeko bat egingo litzateke, bakoitzak bere egia errespetuz eta maitasunez aitortua ikusten duela.

⁹² Ef 5,1.

⁹³ *Gaudium et spes*, 24. z.

Hirutasunaren bizitzan gertatzen diren oinarrizko eraginak: norberaren emaitza eta bestearen onartzea, argitasuna eta maitasuna, alegia, goi agerpenari esker, eredurik gorenak bihur daitezke gizakien bizikidetzarako.

Maitatzea ematea eta onartzea da

89. Jainkozko pertsonak lotura estuan elkarturik daude eta, aldi berean, bereiziak, beren artean dituzten harremanen ondorioz. Aitak bere bizi osoa Semeari ematen dio eskuzabalez, eta Semeak onartu egiten du oso-osorik Aitaren emaitza. Horrela sortzen da, jainkozko pertsona hauen artean, egiazko elkartasuna.

Eman eta onartu, horiek dira egiazko maitasunaren bi mugimenduak. Geurea den guztia ematen dugunean dugu maitatzen. Baina baita besteren emaitza hartzen dugunean ere, hori bait da, besteari bere balioa emateko eta maite dugula kontura dadin, erarik egokiena.

Bi mugimendu horiek gertatzen direnean, gizakien arteko harreman guztiak egiazko elkartasunera zuzentzen dira edozein alorretan: familian, hezkuntzan eta kulturaren lanean, nazioko nahiz nazio arteko bizikidetzan edota eliz bizitzan.

Jainkoarengan, Aitak Semeari egiten dion bere buruaren emaitza osoak, eta Semeak maitasunez erantzuteak, Espiritu Santuari sorrera ematen diote. Halatsu gizakiek ere; elkarren artean beren buruak eman eta besteak onartzen dituztenean, sorrera ematen diote maitasunari: beren arteko harremanak eraldatu eta mundu berri bat sortarazten duen maitasunari. Mundu berri honetan, guztiok neurrigabeko “gu” zabal bat izango ginateke, eta ez genuke inolako “haiek” bat izango aurrez aurre.

Maitasuna eta egia

90. Maitasuna sexuaren pareko jartzen denean, edota sentimendu hutsera mugatzen, ahaztu egiten da maitasunak egiarekin duen zerikusi estua. Baina pertsona batek bere egia behin ere ematen ez digunean, eta geure egia zu-zendu ere zuzentzen ez gaituenean, harekiko harremanek etsipena sortzen dute.

Gizartea, gero eta sozial ezberdintasun handiagoak sortzen dituztenean, arrazoigabeko eta era askotako aberaste moduak onartzen, eta zuzengabekeria bere lanean ari deneko bideak gordetzen dituztenean, horrelakoetan gizartea gezurretik bizi da eta gaizkide bihurtzen, solidaritzarik eta maitasunik ezean.

Elizaren bizitzan bertan ere zail egiten da askotan, maitasunaren eta egia-
ren arteko harreman neurritsu eta egokiak ezartzen. Badirudi, egiarenganako zaletasunak kalte egiten diola maitasunari. Baina egia da, bestalde, egia ahazteak utzikieriaz amore ematera eramaten duela, eta horrek gutxi du ikustekorik egiazko maitasunarekin.

91. Hirutasunaren misterioak dei egiten digu, egia maitasunaren barruko osagai bezala bizitzera, eta maitasuna izaeraren egia eramango gaituen eran bizitzera.

Jainkoarengan, Aitak, bere irudi eta adierazpen betea den Semearengan ezagutzen du bere egia. Horrela, bat egiten du Semearekin, eta maitasunaren betea osotzen dute. Fedeak erakusten digunez, Jainkoaren hirutasunezko bizitza argitasun eta maitasunezko mugimendua da. Norberaren ezaguera argitsutik sortzen da maitasuna: bere betetasunaren onarpen sakona eta bere buruaren emaitza neurrigabea den maitasuna.

Gure artean, egiazko maitasunak ez du ameskeria inozotik sortu behar, nork bere burua onartzetik eta bere ahalmen eta mugapenak argitsu ezagutzetik baizik. Ez dio besteri, eman ez dezakeenik eskatzen; diren direnean onartzen ditu eta, elkarrekin bidari izanez, badaki haien antzekoa dela giza argaltasunean.

Utzikeriaz amore ematen duen gizarteak, hau da: bakeari eusteko aitzakia-rekin, inor bere ahotsa entzun eraztera ausartzen ez denean egiazko balioak adierazteko, halako gizarteak hondamenerako bidean jartzen du bere burua.

Egia, benetan egia izateko, maitasunez kutsatua egon eta maitasunera eramanez behar du. Alferrrikakoak izango lirateke fede formulaketa zehatzak, gizakien zerbitzura norberaren eskaintza egiteko jarrera zintzo batera eramango ez balute.

92. Egiak adierazia eta esana izan behar du. Egia gorderik edukitzea egiazko izaera itxuraldatzea da, eta ezer aldatuko ez denaren etsipenean erortzea. Hori ez da maitatzea. Gauza guztiek berdin balio dutenean, ezerk ez duela batere balio gertatzen da.

Egia da, badela mintzatzeko ordu egokia eta isilik egoteko ordua ere. Ondo bereizten jakitea jakinduria zaila da. Horregatik, geure buruari etengabe galdera egin behar diogu, eta ez komenientziaz, zerk ekar diezagukeen une bakoitzean egiazko bakea.

Jainkoagan bakarrik egiten dute bat egiaren beteak eta maitasunaren beteak. Gizakiok gehienez ere jomuga horretarako bidean ibil gintezke apal-apal.

AZKENA

Hirutasunean bizitzea Jesusen bizitzan txertaturik

93. Jainkoa guretzat ez da eredu bakarrik; bere bizia gudan bizi nahi izan du. Aitak sorkuntza berria eman digu eta bere seme-alaba egin gaitu Kristorengan, eta Espiritu Santuaren maitasunez maite gaitu.

Jesusek gure historiara itzultzen du, Berak Seme bezala Hirutasunaren altzoan Aitarekin batera bizi duena. Espirituaren eraginez Haren bizitza hausnartuz eta Berarekin bat eginez, hortik ikasten dugu zer esan nahi duen Aitaren antzera norik beretik ematea, onartzea, eta egia eta maitasuna lotura estuan elkartzea.

Jesusengan eta, lehenengo ikasle eta Elizaren irudi den, Mariarengan ikusten dugu zehazki, zer esan nahi duen, bizia bihotz zabaltasunez sortzeak: hartzen den guztia besteentzako dohain bezala hartzen dela, alegia. Eta hori ez ekintza handien bidez bakarrik, baita eguneroko gorabehera xumeetan ere.

Era berean, Jesus eta Mariarengandik ikasten dugu, Jainkoaren ontasuna onartzen otoiitzean, mundua Aitaren sorkuntza bezala ikusten, pozik ikusi ere, eta gizakiek, batzutan ezjakinean bada ere, Jainkoaren ontasunaren mezulari bezala dakarkiten guztira zabalik egoten. Eta horrela sumatzen dugu nolabait, neke-minen erdian bakarrik iritsi gintezkeela, “onartu” hitzak sakon-sakonean zer esan nahi duen ulertzeraz.

94. Geure baitatik kanpora atera eta, gure senide diren, gizakien sufrimenera zabaltzen bagara; ustekabeko hainbat gauza eskatu ohi dizkigun bizitzari gudan bere lana egiten uzten badiogu, orduan lortuko dugu geure buruagandik aske izatea. Aske izate honen gailurra heriotza izango da; baina heriotzak Aitarenganako zabaltasun huts eta oso bihurtuko gaitu, Hark bere indar ahaltsuaz berpiztu gaitzan.

“Kristorengan” bizitzea maitasunean bizitzea da: norik beretik emanek eta besterena onartuz, gurutzeari harrera ona eginez eta bide horretatik piztueraren alaitasunera zabalik egonez. Horrela, San Ireneok “Jainkoaren haragi” deitzen dion Jesusen historia geure historia eginez, eskuz ukitzen dugu maitasuna, eta maitasun horretan bizi dugu Hirutasuna, gogoeta sakonetan aritu gabe. San Agustinek dioenez: “Maitasuna ikusten baduzu, Hirutasuna duzu ikusten”. Bila ezazu zeure maitasunaren sorburua, eta horrela ezagutuko duzu Jainkoa.

Hirutasunaren bizian beste gizakiari diogun maitasun xumearen bidez hartzen dugu parte. Hori guri esateko gizon egin zen Jesus. Egiazko maitasuna ikuspegi honetan jartzen da objetiboki beti.

Etsairik funtsezkoena den bekatua garaitzea

95. Beraz, merezi du kristauki bizitzeak eta, horretarako, etsairik funtsezkoena den bekatua garaitzeak, hori bait da kristauki bizitzeko eragozpena sortzen duen etsai bakarra. Pastoral Idazki honetan zehar, indartsu azaldu da etengabeko au-

kera erabakiorra: gaizki ulertutako norberarenganako maitasuna aukeratu, edota Jainkoaganako eta, Harengan, norberarenganako egiazko maitasuna aukeratu.

Norberarenganako maitasuna gaizki ulertu eta itxuraldatzen da, nor bere buruarengan uste handia duenean eta bereaz hustutzeko beldurra dagoenean. Jainkoa ahazteraino bere burua berekoikeriaz aitortze horretan dago gizakiaren bekatuaren zaina, eta hori da beste bekatuen sorburua.

Eragozpena jartzen digu, Jainkoak digun maitasunera zabalik egoteko eta geure maitasunez Berari erantzuteko. Harrera ona egiteko jarrerak duen giza ontasuna ahaztera eramaten gaitu. Okertu eta itxuragalduta uzten ditu bestee-kiko gure harremanak, eta galarazi egiten du harreman hauek maitasunez ore-tuak egon daitezen. Horrela, pertsona gauza bihurtzen hasten gara, eta bide ho-rrek gizakiaren aurkako burugabekeriarik handienetara eramaten gaitzake. Denen jabe egiteko gosea sortzen du, eta ez elkarrekin banatzearen poza; indarkeria bai, eta ez bakea.

Jainkoarenganako maitasunera eta biziaren betetasunera bihotz-berritzea

96. Jesukristo “bidea, egia eta bizia” dela, eta norbere bizia Harengan hezur-mamitu beharra dagoela aurkitu duenak, sumatzen du bere barruan bihotz-berritze bidean aurrera egiteko deia. Kristauaren azken helburua egintzara eramatera egiten zaion deia, alegia: “niretzat, bizitzea Kristo da”. Hala ere, askotan Ebanjelioko elbarriaren antzekoak gertatzen gara. Konturatzen zen egiazko bizia Jaunarengan zegoela, baina ez zen gauza Harengana hurbiltzeko.

Aitortzen dugu, agian, geure eta besteen, bakoitzaren eta guztien, zorionik ezaren zaina maitasunik ezean dagoela, eta horrek apartatzen duela gizona Jainkoagandik eta bere senideengandik. Aitormen honi ez zaio bere baliorik gutxitu behar. Aintzakotzat hartzen dela esan nahi du; eta lagundu egin behar digu, geure egiaren eta Jainkoaren egiaren aurrean jartzen.

Segur aski, bidean aurrera egiten lagunduko digun eragin baten beharra daukagu, biziaren agintzaria dela ikusten duguna, bizia bihurtzera eramaten gaitzan. Jesusen jarraipenaren arrisku pozgarria eskaintzen zaigu, horretarako barkamena onartzean lortzen dugun adiskidetzaren lehen pausoa emanez.

Oraintxedanik Jaunaren piztueraren ikuskizun pozgarriak argi egiten digu. Bazko misterioa ospatzeko prestatze bidean goaz; badugu horretarako, Elizan dagoen eta lanean ari den Espirituaren laguntza. Eliza bera eskaintzen zaigu Espirituaren bitartekari, bihotz-berritze eta adiskidetze prozesu honetan. Penitentziako sakramentuak bide ematen du, ezaugarri da eta egintzara eramaten du, Espirituaren indarrez, Jainko Aitarekiko adiskidetze ekintza, Jaunaren piztueran guk ere parte izan dezagun.

Dei egin nahi dizuegu kristau guztioi, sakramentuzko barkamenaren esperientzia, batzuentzat agian urruti geratzen dena, berritzera, alaitasunez eta pozez. Hala izan behar du.

Itxaropena euskarri dugula

97. Kristau maitasuna, oraintxedanik, Jainkoa den elkartasunezko maitasuna da. Gurutzean garbitua izan den bazko maitasuna; bihotz-berritzea da, eta grazia, poza eta itxaropena. Eguneroko gure ahalegin apalak aintzazko ondasun neurrigabeak pilatzen ditu. Gaur-gaurkoz bila gabiltzan hori, egunen batean lortuko dugu, ez geure ahaleginari esker, geure itxaropena jarri dugun Haren leialtasunaz baizik.

Betiorean dugun fedea azken benetakotasuna ematen dio lur honetako gure jardunari; Jainkoak Jesusengan erakusten dizkigun bideetan geure uste ona jarririk, eta Aitak prestatu digun jai handira garamatzen historiaren bidean aurrera eginez, gizabidezko mundu baten zerbitzura ari bait gara lanean lur honetan.

Mundu honetako balioak ez dira betierekoak, baina haien prestaera dira. “Aulkian zegoenak esan zuen: ‘Orain gauza guztiak berri egiten ditut’... Egarri denari hutsean emango diot Nik ura, biziaren iturritik”⁹⁴. Hau da itxaropenezko gure erantzuna: “Amen. Zatoz, Jesus Jauna!”⁹⁵.

Iruñea eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz
1990, otsailak 28
Hausterre eguna

- ✘ **Jose Maria**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Koldobika M.**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Gasteizko Gotzaina
- ✘ **Joan Maria**, Bilboko Gotzain Laguntzailea

⁹⁴ Apk 21,5-6.

⁹⁵ Apk 22,20.